

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko ekainaren 29a

70. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/PES-00100. Galdera, hartzak ganaduari egindako erasoak prebenitzeko 2024an hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-26/PES-00101. Galdera, Foruzaingoak Nafarroan Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-26/PES-00102. Galdera, Nafarroan gaur egun paratu, merkaturatu edo erabiltzen diren materialek amiantorik ez dutela egiaztatzeko kontrolmekanismoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-26/PES-00103. Galdera, Arantzaditik irtenarazitako 98 pertsonak artatu eta babesteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-26/PES-00105. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obrak egiteko epea luzatzeri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-26/PES-00106. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak jasotako zenbatekoak inpugna tzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-26/PES-00108. Galdera, Nafarroako hirugarren sektoreari buruzko lege berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-26/PES-00110. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuaren eta KPMG aholkularitza-enpresaren arteko kontratuaren epea luzatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-26/PES-00111. Galdera, iragan apirilaren 19an Tuterako harrera-pisu batean adingabe bat atxilotu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-26/PES-00112. Galdera, sektore aeroespazialari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-26/PES-00113. Galdera, Geoalcali SLri 2011tik aitzina emandako meatze-ikerketarako baimenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-26/PES-00114. Galdera, Miguel Induráin Fundazioaren kirolariendako beken deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-26/PES-00115. Galdera, Nafarroako Net Zero Tech Valley estrategiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- 11-26/PES-00116. Galdera, Iruñeko aireportuko aire bidezko konexio berrien lizitazioa argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-26/PES-00117. Galdera, Nafarroako Ubidearen “etorkizuneko erabileren” 2068ra bitarteko aurrerakin ekonomikoak eta interesak itzultzeko epea aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-26/PES-00118. Galdera, etxeko eta zaintzen arloko emakume langileen diskriminazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-26/PES-00119. Galdera, PFEZaren deflaktazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-26/PES-00120. Galdera, suizidioa prebenitzeko eta hiltzen laguntzeko Nafarroako estrategiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-26/PES-00121. Galdera, Nafarroako Kultur Ondarearen Institutua proiektuaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-26/PES-00122. Galdera, Palestinaren okupazioarekin zerikusia duten enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-26/PES-00123. Galdera, Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko urteko txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-26/PES-00124. Galdera, onura publikoko 191 zenbakiko mendiari (“Las Selvas”) buruzko bateragarritasun- edo gailentasun-deklarazioaren gainekoa, Geoalcali, SLk sustatutako Mina Muga proiektuari dago-kionez. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-26/PES-00126. Galdera, hezkuntza-laguntzako espezialisten zerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-26/PES-00127. Galdera, Volkswageni eta Israelekin dituen harremanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-26/PES-00128. Galdera, ehiza antolatzeke planen luzapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-26/PES-00130. Galdera, epidermolisi builoso distrofikoaren diagnosia duten nafar pazientei Vyjuvek botika finantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 11-26/PES-00135. Galdera, 11-26/PEI-00018 zenbakiko espedienteari emandako erantzunari atxikitako dokumentuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

F saila:
GALDERAK

11-26/PES-00100. Galdera, hartzak ganaduari egindako erasoak prebenitzeko 2024an hartutako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak hartzak ganaduari egindako erasoak prebenitzeko 2024an hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 24ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-26/PES-00100 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Hartzak ganaduari erasorik ez egiteko 2024an ezarritako neurriei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Zer-nolako ebaluazioa egiten duen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak 2024an Nafarroako Pirinioetan, bereziki Erronkari

Ibarrean, hartzak aziendari erasorik ez egiteko ezarritako neurriei buruz.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak oso positiboki ebaluatzen du abeltzainek "Abeltzaintzaren eta haragijale handien arteko baterako existentziari" buruzko nekazaritza eta ingurumen laguntza jaso izana; izan ere, laguntza guztiz berritzailea izan arren, eskatzaile askok hartu dute laguntza hori.

Laguntza hau Nafarroako ardi aziendaren ustiategi guztiei irekita dago, estentsiboan bazkatzen duten eta fauna basatiaren harrapari handien erasoak jasateko arriskua duten artaldeak babesteko neurriak hartzea sustatzeko. Neurria NPB 2023-2027 delakoaren egungo plan estrategikoaren nekazaritza eta ingurumen laguntza gisa jasota dago.

Laguntzak 5 urterako konpromisoa du. 2024an eta 2025ean deialdia egin da, eta 2029ra arte 1,3 milioi euroko gastua egiteko konpromisoa hartu da.

Zehazki, 2024ko kanpaina honako abeltzain hauek heldu zieten laguntzei:

2024 KANPAINA				
	Laguntzei heldutako abeltzainak guztira	Zenbatekoa guztira	Erronkari-Zaraitzuko abeltzainak guztira	Erronkari-Zaraitzuko abeltzainen zenbatekoa guztira
1. neurria. GPS	45	18.352 €	15 (23 GPS)	5.704 €
2. neurria. Gaua igarotzeko egiturak	39	23.400 €	9	5.400 €
3. neurria. Txakur zaindariak	29	36.660 €	6 (6 txakur)	4.230 €
4. neurria. Laguntza artzaina (arriku eremuan bakarrik aplikatzen ahal da)	6	34.000 €	6	34.000 €
ZENBATEKOA, GUZTIRA	58	112.412,00 €	15	49.334,00 €

2025eko kanpainan, laguntza horiek berriro aurkeztu ziren, eta honako abeltzain hauek heldu zieten laguntzei:

2025 KANPAINA				
	Laguntzei heldutako abeltzainak guztira	Zenbatekoa guztira	Erronkari-Zaraitzuko abeltzainak guztira	Erronkari-Zaraitzuko abeltzainen zenbatekoa guztira
1. neurria. GPS	58	39.396 €	15 (29 GPS)	8.526 €
2. neurria. Gaia igarotzeko egiturak	55	37.950 €	12	8.280 €
3. neurria. Txakur zaindaria	40	54.285 €	6 (10 txakur)	108.800 €
4. neurria. Laguntza artzaina (arriku eremuan bakarrik aplikatzen ahal da)	8	108.000 €	8	108.000 €
ZENBATEKOA, GUZTIRA	71	239.631,00 €	15	131.586,00 €

2. Zer emaitza zehatz izan dituzten jarduketa horiek, gorabeherak murrizteari, ustategi onuradunen kopuruari eta 2025ean egindako inbertsioei dagokienez, eta zer jarraipen edo areagotze aurreikuspen dauden 2026rako

Hona hemen 2024ko eta 2025eko erasoen zerrenda:

- 2024an 13 eraso izan ziren, emaitza 20 ardi-
ren heriotza eta abortu bat izanik.
- 2025ean, 0 eraso egon ziren (0 ardi hil ziren).

Babes neurri horiek aplikatzen hasi zirenetik denbora gutxi igaro denez, ezin da eraso kopu-
ruaren eta aplikatutako neurrien arteko balorazio-
rik egin. Bai, 2024an eta 2025ean ez da gertatu
erasorik laguntza horien onuradunen kontra.

Abeltzainek ezarritako babes neurriez gain,
Ingurumen Zuzendaritza Nagusia hainbat inber-
tsio egiten ari da Erronkari Ibarreko abeltzaintza
jarduera hobetzeko. Honako hauek izan dira
2024an eta 2025ean egindako inbertsioak:

BIODIBERTSITATEAREN ETA ARRANTZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA 2024	78.559,32
BASO ZERBITZUA ETA EHIZA KUDEAKETA 2024	216.259,00
BIODIBERTSITATEAREN ETA ARRANTZA KUDEAKETAREN ZERBITZUA 2025	233.441,90
BASO ZERBITZUA ETA EHIZA KUDEAKETA 2025	297.572,18

- Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketa-
ren Zerbitzuak inbertsio hauek egin ditu 2024an:
 - Ezkaurrerako bidezidorra/bidea garbitzea.
 - Hartzak uxatzeko lanparak erostea.
 - Hartzei jarraipena egiteko fototranpa ekipoak
erostea.
 - Itoletako (Garde) abeltzaintza mahuka
konpontzea.

- Haragijale handiak uxatzeko 6 hesi elektriko
erostea.
- Baso Zerbitzuak eta Ehiza Kudeaketak inber-
tsio hauek egin ditu:
 - Mintxate-Burgiarte pista hobetzeko obraren
jarraipena.
 - Sasiko askak eta itxitura konpontzea (2023-
2024). Abeltzaintza azpiegiturak hobetzea (pasa-
bide kanadarrak Mazon eta Mintxaten).

– Gardeko herri-basoaren oihan antolamendurako proiektua (2024-2025). 2023-2024 kanpainako basogintza lanetarako laguntzak.

• 2025ean, Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuak honako inbertsio hauek egin ditu:

– Hesi elektrikoetarako hagaxkak, bateriak eta bateria kargagailua eta kamera fototranpa kameretarako txartelak erostea.

– Abeltzaintza estentsiborako azpiegiturak hobetzeko lanak Erronkari Ibarreko hartz eremuetan, zehazki, Lutoa eta Yeguaceros txaboletan (Belaguako portua).

– Sastrakak kentzeko lanak, Puntabarrenako larre eremuak mantentzeko.

– Puntabarrenako plantazio linealaren mantentze-lanak.

Baso Zerbitzuak eta Ehiza Kudeaketak inbertsio hauek egin ditu:

– Erronkariko abeltzaintza azpiegiturak hobetzea (2025-2026).

– Suteen aurkako pista hobetzea Izizeren eta Igari-Bidankoze gainaren artean. (Erronkariri eta Zaraitzuri eragiten die).

– Kalbeira mendira (Garde) sartzeko baso pista hobetzeko premiazko jarduketak.

– Jardunak Majadal Grande, Portillo del Trozon eta Armentadoian. Baliozkotze teknikoaren zain. Gutxi gorabeherako kostua.

– Batzarraren larre plana Uztarrozen (INTIAren enkarguaren esparruan: abeltzaintza laguntza eta suteen prebentzioa). Amaituta.

– 2024-2025 kanpainako basogintza lanetarako laguntzak.

Hauek dira Zuzendaritza Nagusiak 2026an aurreikusitako inbertsioak:

• Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuaren aldetik:

– Abeltzaintza estentsiborako azpiegiturak mantentzeko lanak Erronkari Ibarreko hartza eremuetan, zehazki Subitzako txabolan.

– Kalbeira-Ildoian (Garde) pinuak moztuz larreak lehengoratzeari, hartzaeren eta eper grisaren habitata hobetzeko.

• Baso Zerbitzuaren eta Ehiza Kudeaketaren aldetik:

– Kalbeira mendira (Garde) sartzeko baso pista hobetzeko proiektua, II. fasea.

– Suteen aurkako pista hobetzea Izizeren eta Igari-Bidankoze gainaren artean. (Erronkariri eta Zaraitzuri eragiten die).

– Erronkariko abeltzaintza azpiegiturak hobetzea (2025-2026). Berroetako pista.

– 2025-2026 kanpainako baso lanetarako laguntzak.

Bestalde, eta urteko lan gisa eta Pirinioetako gainerako administrazioekin koordinatuta, hartz arrastoen jarraipena egiten da, ile tranpak, fototranpa kamerak eta transectak jarriz hartzak dau den eremuetan.

Gainera, 2025ean informazioa zabaldu zen www.ososennavarra.es/EUS webgunearen bidez. Webgune hori abeltzainek eta udal erakundeek hartz arrearen aztarnei buruzko informazioa jasotzeko egindako eskaera nagusietako baten zati gisa sortu zen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-26/PES-00101. Galdera, Foruzaingoak Nafarroan Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Foruzaingoak Nafarroan Donejakue Bidean egiten duen zaintza indartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 24ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foruparlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-26/PES-00101 galdera idatzia egin du. Bada, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoaren kontseilariak honako hau jakinarazten du galderarekin loturik:

Helarazitako gaiak ez dira Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuaren eskumenekoak.

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Kultura, Kirol eta Turismoaren kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-26/PES-00102. Galdera, Nafarroan gaur egun paratu, merkaturatu edo erabiltzen diren materialek amiantorik ez dutela egiaztatzearen kontrol-mekanismoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroan gaur egun paratu, merkaturatu edo erabiltzen diren materialek amiantorik ez dutela egiaztatzearen kontrol-mekanismoari buruzkoa, 2026ko apirilaren 24ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak haxe jakinarazten du,

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foruparlamentari Félix Zapatero Soria jaunak gaur egun Nafarroan instalatutako, merkaturatutako edo erabiltutako materialek amiantorik ez dutela egiaztatzearen kontrol-mekanismoaren gainean idatziz erantzuteko eginiko 11-26/PES-00102 galderari buruz:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua ez da departamentu eskuduna amiantoaren existentzia kontrolatu, ikuskatu eta zaintzearen alorrean.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezcua

11-26/PES-00103. Galdera, Arantzaditik irtenarazitako 98 pertsonak artatu eta babesteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Arantzaditik irtenarazitako 98 pertsonak artatu eta babesteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 24ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-26/PES-00103 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-ko kontseilariak honako hau erantzun du:

Galdera horri dagokionez, adierazi behar da toki-entitateei dagokiela bazterketa sozialeko ego-

eran edo arriskuan dauden pertsonen presako harrera eta berehalako arreta ematea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 26. artikulua eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 30. artikulua aplikatuta.

Adierazi behar da, orobat, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-ko Departamentua Iruñeko Udalarekin batera lan egiten ari dela egoera horiei heltze aldera, eta, ildo horretatik, dauden baliabide arruntetarako finantzaketa areagotu da, hala nola aterpetxeetarako. Horrez gain, profil horientzako baliabideak sortu eta sendotzeko egitasmoak finantzatu dira, esaterako, ETXE BAT Programa (Housing Led) eta Iruñeko Udalaren Etxerik Gabeko Pertsonen Arreta Zentroaren abiaraztea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-ko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafra

11-26/PES-00105. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obrak egiteko epea luzatzeri buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak Belateko tunelak bikoizteko obrak egiteko epea luzatzeri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 24ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzun dakion, ABEE esleipendunak Nafarroako

Belateko tunela bikoizteko obretarako (11-26/PES-00105) epea luzatzeko eskatutako aukerari buruz. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernu-ko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horren inguruan:

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia ez dago jasota Belateko tunela bikoizteko lanak egiteko epea luzatzeko eskaera formalik. Ez dago halakorik berariaz eskatzen den dokumenturik edo mezurik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-26/PES-00106. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak jasotako zenbatekoak inpugna tzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obren aldi baterako enpresa-elkarte esleipen-hartzaileak jasotako zenbatekoak inpugna tzeari buruzkoa, 2026ko apirilaren 24ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Pedro González Felipe jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzun dakion, Belateko tunelak bikoizteko obren ABEE adjudikaziodunak orain arte egindako lanengatik jasotako zenbatekoak aurkaratu izanaren posibilitateari buruz (11-26/PES-00106). Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak horren inguruan:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, aurkaratze gisa definitzen dira V. tituluko II. kapituluaren aurreikusitako administrazio-errekurtsoak.

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak honako ebazpen hauen aurkaratzea dago jasota: 466/2025 Ebazpena, 2025eko abenduaren 24koa, 14.-20. ziurtagiriak (2025eko maiatzekoa eta 2025eko azaroaren 20koa, hurrenez hurren) onesten dituenak, 2026ko otsailaren 3an gora jotzeko errekursoaren bidez aurkeztua; 85/2026 Ebazpena, apirilaren 10ekoa, 21. obra-ziurtagiria –2026ko apirilaren 15ean jakinarazia– onesten duena; 91/2026 Ebazpena, apirilaren 16koa, 22. obra-ziurtagiria –2026ko apirilaren 17an jakinarazia– onesten duena; eta 92/2026 Ebazpena, apirilaren 16koa, 23. obra-ziurtagiria –2026ko apirilaren 17an jakinarazia– onesten duena (2026ko maiatzaren 7an gora jotzeko errekursoaren bidez aurkeztuak egonik).

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 15ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-26/PES-00108. Galdera, Nafarroako hirugarren sektoreari buruzko lege berriari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroako hirugarren sektoreari buruzko lege berriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-26/PES-00108 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-ko kontseilariak honako hau erantzun du:

Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreari buruzko Foru Legearen Aurreproiektuak gainditu du aurretiko kontsulta publikoaren izapidea, 2025eko urriaren 3an hasi zena eta urte bereko abendua-

ren 2ra arte herritarrei ekarpenak aurkezteko aukera eman ziena. Hortaz, hurrengo urratsa lege-proiektua jendaurrean jartzea da, eta jada prest dugu testu hori.

Denboraldi horretan, ONCE Fundazioak ekarpen bat egin du, eta haren erantzuna partaidetza txostenean jasoko da, aurretiko kontsulta publikoaren emaitzarekin.

Horraino iristeko, modu koordinatu eta bateratuan lan egin da, Hirugarren Sektoreko Erakunde-en Plataformarekin, solaskide ordezkagarri gisa, aurreproiektuaren helburuak eta irismena garatzen dituen lege berriaren printzipio gidariak txertatzeko.

Horrela, arau proiektuaren testua itzulpen prozesuan dago, herritarren partaidetzara igo ahal izateko. Horri esker, prozedura behar bezala garatzeko nahitaezko memoriak eta txostenak biltzen jarraitzen ahalko da, eta, horrela, foru-lege proiektua onesteko erabakia Gobernuari helarazten ahalko zaio.

Nafarroako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreari buruzko Foru Legearen proposamenaren xedea da esparru juridiko egonkor bat ezartzea, hirugarren sektoreko entitateen zeregina eta horiek Nafarroako administrazio publikoekin duten harremana aitortu, arautu eta sendotuko duena.

Testuak bere aplikazio eremua mugatu eta gizarte ekintzako eta interes orokorreko jarduerak zehazten ditu, sentsibilizazioa, gizarte partaidetza, boluntariora, ikerketa, gizarte berrikuntza, pertsonei eta kolektiboari zerbitzuak eta laguntza ematea eta halako jarduketak barne hartuta. Hala, ber, gardentasunari, gobernu onari, berdintasuna-

ri, partaidetza demokratikoari, autonomiari, kalitateari eta gizarte eta lurralde kohesioari lotutako jarduketak printzipioak ere ezartzen ditu.

Proposamenak berariaz aitortzen du lankidetzak politika publikoen plangintzan, diseinuan, exekuzioan eta jarraipenean, zeharkako ikuspegia txertatuz, eta aukera emanez gizarte ikuspegia politika guztietan txertatzeko, baliabide publikoen efizientzia eta aprobetxamendua hobetze aldera.

Proposamenak elkarriketa zibila eta erakundeen parte-hartzea arautzen eta indartzen ditu, Administrazioaren eta sektorearen arteko elkarriketarako gune egituratu eta egonkorak sustatuz, bai eta Administrazioaren ordezkaritza sareek kontsulta organoetan eta partaidetzarako guneetan duten presentzia ere. Era berean, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko Erakunde-en Errolda baten sorkuntza ezartzen du, sektorekoa dela egiaztatze eta aintzatespen, solaskidetzak eta sustapenerako tresnak errazte aldera.

Azkenik, sektorea sustatzeko eta indartzeko neurriak jasotzen ditu legeak, urte anitzeko plan estrategikoak, berrikuntzarako laguntza, prestakuntza, profesionalizazioa, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza barne harturik, gizarte ongizaterako eta Nafarroaren kohesiorako ekarpena indartze aldera.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-26/PES-00110. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuaren eta KPMG aholkularitza-enpresaren arteko kontratuaren epea luzatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Inbertsio Institutuaren eta KPMG aholkularitza-enpresaren arteko kontratuaren epea luzatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputa-

zioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak 2026ko apirilaren 21eko eskaera egin zuen idatziz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuaren irteera zenbakia 202602258 (11-26/PES-00110) izanik; horri dagokionez, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak honako hau adierazi du:

Lehenengo galderari dagokionez, adierazi behar da diagnostiko faseari dagokion epearen luzapena bi alderdiek sinatutako eranskin baten bidez formalizatu zela 2025eko azaroaren 21ean. Diagnostiko fasean eginiko lanen ondoriozko analisi tekniko jakin batzuetan sakondu eta eta horiek indartu beharretik dator aldaketa. Halaber, komenigarritzat jo zen 2024ko ekitaldiari dagokion informazio makroekonomiko gehigarria txertatzea, baita datu estatistiko ofizialak ere (2025eko abenduaren amaieran argitaratuko zirela zegoen aurreikusita).

Epea luzatzeko eskaera formalki egin zuen entitate adjudikaziodunak.

Adostutako epe berriei dagokienez, aldaketa bakarra diagnostiko fasea bederatzi aste luzatzean zetzan, eta fase hori entregatzeko gehiengo data 2026ko urtarrilaren 24a ezarri zen, hasieran aurreikusitako gainerako kontratu epeak eta kondizioak mantenduta.

Bigarren galderari dagokionez, hasierako diagnostikoa entregatzeko epea aldatzeko kontratuaren eranskinean dago.

Eta azken galderari dagokionez, jada adierazi den bezala, kontratuaren eranskinaren bidez formalizatzen da epeen aldaketa, eta foru parlamentariak Ekonomia eta Ogasun Departamentuan du eskuragarri.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-26/PES-00111. Galdera, iragan apirilaren 19an Tuterako harrera-pisu batean adingabe bat atxilotu izanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak iragan apirilaren 19an Tuterako harrera-pisu batean adingabe bat atxilotu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-26/PES-00111 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Eskubide Sozietako,

Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak honako hau erantzun du:

Apirilaren 18an, goizean, baliabideko adingabe batek pisukide batekin lotutako gertakari batzuk kontatu zizkion hezitzaileari. Hurrengo egunean, adingabekoak salaketa bat jartzea erabaki zuen Poliziaren aurrean, eta berarekin joan zen, baina ezin izan zuen salaketa aurkeztu, berandu baitzen. Arratsalde-gauean, adingabea etxera itzultzean, pisukidea eta beste adingabe batzuk kalera jaitsi ziren errieta egitera (nola neskatoari hala harekin zeuden lagunei). Hezitzailea egoera lasaitzen saiatu zen, baina nahastea ikusirik, poliziari jakinarazi zitzaion atxilotuta eramanen zutela adingabe protagonista.

Etxebizitza oinarritzko egoitza harrerarako baliabidea da, eta 8 leku ditu; apirilaren 19an zazpi leku zeuden beteta.

Baliabideak, normalki, honako hezitzaile hauek izan ohi ditu (gehi lantalde teknikoa):

Zuzeneko arretako hezitzaileak: B mailako funtzioak (2. taldea)

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goizez (08:00-14:00)	1	1	1	1	1	2	2
Arratsaldez (14:00-22:00)	2	2	2	2	2	2	2

Laguntzeko eta lagun egiteko hezitzaileak (3. taldea)

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Gauetz (22:00-08:00)	1	1	1	1	1	1	1

Alabaina, apirilaren 19ko gauean zuzeneko arretako bi hezitzaile zeuden txanda horretan, eta baliabidean presente zeuden.

Errekurtsoaren bidez helarazitako txostenaren arabera, adingabeari laguntza egokia eman zitzaion, eta hezkuntza taldea indartu egin zen gauetz, zailtasunak izateko arriskua zegoelakoan. Halaber, gertakariaren protagonista den gaztearekin hitz egin zen, baina bi hezitzaileek ezin izan zioten egoerari kontrolpean izan, eta gaztearen jokabidea ikusita, poliziaren esku-hartzea eskatu zuten.

Bestalde, adierazi behar da gatazka egoerak talde guztietan gertatu ohi direla; babes sistemak hurrekin eta nerabeekin lan egiten du gatazka horiei aurre egiteko eta konpontzen saiatzeko, indarkeria egoerak saiheste aldera.

Nafarroako Gobernuak lanean jarraitzen du babes sisteman arreta hobetzeko, eta horretarako

baliabide nagusia profesionalen prestakuntza etengabe hobetzea da. Gero eta konplexuagoak dira lagun egiten dieten adingabeen inguruko egoerak, eta balorazio zehatzagoa eta esku-hartze espezifikoagoa behar dute; beraz, prestakuntza funtsezkoa da. Laster esku hartzeko eredu bat (CARE) pilotatuko da hainbat pisu eta etxetan, profesionaleri baliabide berriez hornitze aldera adingabe horiek pairatzen duten ondoeza hobetzeko. Gainera, langileen ratioak doitzen ari dira 2022a baino lehenagoko itunetan (hura itun horietako bat zen).

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-26/PES-00112. Galdera, sektore aeroespazialari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak sektore aeroespazialari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak idatziz erantzuteko eginiko 11-26/PES-00112 galderari buruz:

Zer neurri zehatz ditu edo izateko asmoa du Nafarroako Gobernuak ziurtatzeko sektore aeroespazialerako laguntza-neurriak ez direla erabiliko gerrako armak eraikitzea bideratutako osagaiak edo beste edozein ondasun edo zerbitzu fabrikatzen dituzten enpresa proiektuetarako?

2026an zehar, Nafarroako Gobernuak Nafarroan Sektore Aeroespaziala Bultzatzeko Ekintza Plana garatzen ari da. Gobernuak ez da berariazko planik garatzen ari defentsaren sektorean enpresa proiektuak babesteko. PES-00074 galderari emandako erantzunean adierazi zen bezala, Gobernuaren helburua da sektore haren balio kate bat eratu dadin sustatzea Nafarroan, honako eremu hauetan:

- Osagaien eta sistemen fabrikatzaileak
- Test ingeniariak eta zerbitzu espezializatuak
- Makina erreminta eta prozesuen irtenbideak
- Segmentu berrietako operadoreak
- Data analytics
- Materialen hornitzaileak
- O & M azpiegiturak
- Zentro teknologikoak eta unibertsitateak

Sektore horietako bakar batean ere ez da aurreikusten gerra armak eraikitzeke ondasunak edo zerbitzuak biltzen dituztenak babesteko ekimenik. Aurreikusitako neurriak sektore aeroespazialeko jardueretara bideratuko dira, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren arabera.

Nafarroako Gobernuak ba al du tresnarik monitorizatzeko Nafarroako zer enpresa jarduera bideratzen diren defentsaren sektorerara eta jarduerak horien azken helmuga eta giza ondorioak zein diren jakiteko?

Etorkizuneko Sektore Aeroespaziala Bultzatzeko Ekintza Plana azpisektore oso zehatzak –aurreko erantzunean zehaztuak– garatzera bideratuta dago. Gobernuak ez du eskuragarri ikuskapen hori ahalbidetzen duen tresnarik, laguntza publikoen bidezko laguntza neurriak, adibidez, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalan (EJSN 3030) jasotako sektore aeroespazialeko jardueretara bideratzen direla ziurtatzeaz aparte.

Nafarroako Gobernuak ziurtatzen al du Nafarroako sektore aeroespazialari laguntzeko bere neurrietako batek ere edo hedatzea aurreikusten duen neurrietako batek ere ez duela lagunduko, ez zuzenean ez zeharka, giza eskubideen urraketan edo gizateriaren aurkako krimenetan? Zer tresna ditu horretarako?

Nafarroako Gobernuak ez du eskumenik horrelako neurriak ezartzeko. Horretarako, beharrezkoa da horretarako gaitzen duen lege esparru orokor bat izatea.

Adibidez, 2025eko irailaren 23an, Estatuko Gobernuak, Pedro Sánchez Pérez-Castejón izanik presidentea, eta Espainiako Konstituzioan xedatutakoaren babesean betiere, irailaren 23ko 10/2025 Errege Lege Dekretua eman zuen, Gazako genozidioaren aurkako premiazko neurriak hartzei buruzkoa.

Konstituzioaren 86. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 30 eguneko epean, 10/2025 Errege Lege Dekretua behar bezala berretsi zuen Diputatuen Kongresuak, aldeko 178 botorekin, besteak beste, PSOE, Sumar, EH Bildu eta Podemos alderdikoenak. Gainera, Ganberak lege-proiektu gisa premiazko prozeduraren bidez izapidetzea erabaki zuen, eta, horrela, aldeko botoa eman zuten alderdiek erakutsi zuten ados zeudela Espainiako

Gobernuak Gazako krisi humanitarioari erantzuteko eta giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arloan nazioartean dituen obligazioak betetzeko emandako arauarekin.

Nafarroaren eskumen esparruari dagokionez, eta 10/2025 Errege Lege Dekretua BOEn argitaratu zenetik nahitaez eta berehala bete behar den arren, Nafarroako Gobernuak berariaz adierazi du 10/2025 Errege Lege Dekretuan ezarritakoa bete behar dela, Nafarroako enpresek eskaintzen dituzten laguntzen deialdiei aplikatu beharreko araudi gisa, eta gogorarazi die enpresa onuradunek arauan ezarritakora egokitu beharko dutela beren jarduerara. Adibidez, lehiakortasuna hobetzeko laguntzen 2026ko deialdia onartzen duen Enpresa Sustapeneko eta Azpiegituretako zuzendari nagusiaren martxoaren 30eko 70E/2026 Ebazpenaren 2. oinarrian xedatzen denez, "Laguntzak eskatzeko unean baldintza hauek betetzen dituzten enpresak izaten ahal dira onuradun", besteak beste, hau egiaztatzen dutenek: "f) Irailaren 23ko 10/2025 Errege Lege Dekretuak debekatutako jarduerak garatzen ez ibiltzea. Errege lege-dekretu horren bidez premiazko neurriak hartu ziren Gazako genozidioaren aurka eta palestinarren alde".

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betetz.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 27an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-26/PES-00113. Galdera, Geoalcali SLri 2011tik aitzina emandako meatze-ikerketarako baimenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Geoalcali SLri 2011tik aitzina emandako meatze-ikerketarako baimenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin zuen Geoalcali SLri 2011ra arte emandako meatzaritza ikerketarako baimenei buruz (11-26/PES-00113). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horri dagokionez ematen dion informazioa:

1 eta 2. galderak. Zer ikerketa baimen eman zaizkio Geoalcali SL merkataritza sozietateari 2011tik 2026ra arte? Zein egoeratan dago horietako bakoitza?

Hona hemen ikertzeko emandako baimenak eta horien egoera:

Ikertzeko baimena	Egoera
Adiós, 35770 zk.	Bigarren luzapen eskaera 2018ko urrian ukatu zen. Enpresak gora jotzeko errekurtsua jarri du. Hiru hilabete igaro ondotik, errekurtsua ezetsitzat joko da (39/2015 Legearen 122. art.).
Quiñones, 357860 zk.	Bigarren luzapen eskaera 2018ko urrian ukatu zen. Enpresak gora jotzeko errekurtsua jarri du. Hiru hilabete igaro ondotik, errekurtsua ezetsitzat joko da (39/2015 Legearen 122. art.).
Adiós, handitzea, 35880 zk.	Bigarren luzapen eskaera 2020ko azaroan ukatu zen. Enpresak gora jotzeko errekurtsua jarri du. Hiru hilabete igaro ondotik, errekurtsua ezetsitzat joko da (39/2015 Legearen 122. art.).
Goyo, 35780 zk.	Hiru ikerketa-baimenen ondoriozko emakidak eman dira (Goyo, 35780 zk., Muga, 3500-10 zk. eta Fronterizo, 3502 zk.). Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 000285/2024 epaiaren ondotik, kasazio-errekurtsuak aurkeztu dira, eta onartzeko/ez onartzeko zain zeuden.
Vipasca, 35900 zk.	2022an, enpresak ikerketa baimenaren ondoriozko ustiapen emakida eskatu zuen. Eskaera administrazio-isiltasunez ukatu dela ulertuko da (39/2015 Legearen 24. artikulua).
Goyo Sur, 35910 zk. (Ministerioa)	2015ean bukatutzat jo zen, enpresak uko eginda.
Goyo Sur, 35920 zk. (Ministerioa)	2022an iraungitzat jo zen, enpresak uko eginda.
Giraldi, 35950 zk.	2019ko otsailean iraungitzat jo zen, enpresak uko eginda.
Borneau, 35960 zk.	2019ko otsailean iraungitzat jo zen, enpresak uko eginda.
Oskia, 35790 zk.	2020ko urtarrilean iraungitzat jo zen, enpresak uko eginda.
Palero, 36000 zk.	2019ko otsailean iraungitzat jo zen, enpresak uko eginda.

3. galdera. Horietako zein bihurtu dira ustiapen baimen?

Aurreko taulan adierazten den bezala, 35780 zenbakiko Goyo baimenaren ondoriozko emakida baino ez da igorri.

4. galdera. Zenbat jo dira iraungitzat eta zenbatetan jarri ditu Geoalcali merkataritza-sozietateak luzapenak ukatzearen aurkako gora jotzeko errekurtsuak? Errekurtsu horiek ebatzi dira?

Aurreko taulak iraungitzat jo diren baimenak jasotzen ditu, eta horietatik zenbatean jarri dituen Geoalcali enpresak luzapen ukapenen aurkako gora jotzeko errekurtsuak, hau da: Adiós 35770

zk., Quiñones 357860 zk. eta Adiós zabalkundea 35880 zk., PES-00071 galderari erantzunez jada adierazi zen bezala.

Gora jotzeko hiru errekurtsuak administrazio isiltasunez ebatzi dira. PEI-00353 delakoari erantzuteko hiru espedienteen kopia eman da.

5. galdera. Ba al dago Geoalcali SLk jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsorik ustiapen-baimenei dagokienez?

Departamentu honek ezagutzen duen administrazioarekiko auzien prozedura bakarra 35780 zenbakiko Goyo ikerketa baimenaren ondoriozko ustiapen emakidarako ebazpenaren aurka hasitakoa da.

Idazki honetan jasotako erantzunei dagokienez, garrantzitsua da azpimarratzea ebazteke dauden hiru errekursoak ezetsitzat jotzen direla, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoari jarraikiz; horren arabera, hiru hilabeteko epea erantzunik gabe igarotzen bada, errekurtoa ezetsitzat joko da (isiltasun negatiboa).

Aldi horretan guztian, enpresak ez du inolako jarduketarik egin.

Nolanahi ere, gure zerbitzu juridikoari kontsulta egin ondoren, ulertzen da espedienteak amaitzeko, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, errekursoak ebazteko foru aginduak emanen direla (Adiós 35770 zk. [2018], Quiñones 357860 zk. [2018] eta Adiós zabalkundea 35880 zk., [2020]).

Vipascaren espedienteari dagokionez ere, ezetsitzat jotzen da administrazio isiltasunagatik, lehen aipatutako artikuluen arabera. Alabaina, era berean, dagokion ebazpen agindua emanen da, espedienteen amaiera formalizatzeko, 39/2015 Legearen 21. eta 24. artikuluetan xedaturikoari jarraikiz.

Era berean, adierazi behar da, ukatze hori ikusirik, enpresak ez duela inolako jarduerarik egin, eta, beraz, ukapenak bere horretan jarraitu duela ondorio guztietarako.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-26/PES-00114. Galdera, Miguel Induráin Fundazioaren kirolariendako beken deialdiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Miguel Induráin Fundazioaren kirolariendako beken deialdiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatzizko erantzunerako eginiko 11-24/PES-00114 galderari dagokionez, hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Deialdiaren I. eranskinak, 3.A. puntuan, honako hau zehazten du laguntza jasotzeko baldintza gisa: "a) Nafarroako forudunaren izaera zibila izatea, edo Nafarroako izaera politikoa izatea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 5. artikuluen arabera, beka eskatzen den urtean (2026)".

Eranskin bereko 7. puntuan zehazten da eskabi-dean aurkeztu beharreko dokumentazioa. Zehazki, 2. puntua: "Nafarroako Foru Komunitateko edozein udalerritan erroldatuta egotearen ziurtagiria, 2026ko, 2025eko eta 2024ko administrazio-egoitza jasotzen duena; edo Erregistro Zibilak emandako ziurtagiria, Nafarroatik kanpo jaiotakoen kasuan, Nafarroako forudunaren izaera zibila egiaztatzen duena".

Miguel Induráin Fundazioko kirolarientzako laguntzen deialdia hasi zenetik, onuradun izateko baldintza gisa planteatu da balizko kirolariek "Nafarroako forudunaren izaera zibila izatea, edo Nafarroako izaera politikoa izatea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 5. artikuluen arabera, beka eskatzen den urtean".

Laguntza publikoen eremu subjektiboa homogeneotasunez eta segurtasun juridikoz mugatzea da baldintza horien helburua, eta ez da, beraz, ezein irizpide diskriminatzaile, foru araubidea propioarekin lotzeko elementu bat baizik, kontuan izanik kirol arrazoiengatik mugikortasun handia izan ohi dela esparru horretan.

Alabaina, Gobernuak badaki egoera bereziak jazo litezkeela, adibidez, galderan deskribatutakoak, zeinetan kirolaren alorrean Nafarroarekin bene-

tako lotura duten pertsona jakin batzuek zailtasunak dituzten, batzuetan, betekizun formal hori egiaztatzeko; horregatik, azterketa espezifiko ezinbestekoa da ikuspegi juridiko eta administratibotik.

2026ko deialdian 239 eskaera jaso dira, eta horietako bat ere ez da baztertu puntu horrengatik.

Aberrigabearen izaera duen pertsona baten eskaera dago, baina ez ditu deialdian eskatutako gutxieneko kirol emaitzak.

Nafarroako Gobernuaren aburuz, Miguel Induráin Fundazioak kudeatutako kirolarientzako laguntzen deialdia, oro har, bat dator Nafarroako kirolari eta Foru Komunitateari lotutako kirol talentuen garapenari laguntzeko helburuekin.

Nafarroako forudunaren izaera zibila edo Nafarroako izaera politikoa kondizio gisa erabiltzea hainbat foru politika publikotan finkatutako irizpide baten ondoriozkoa da, berezko eskumen eta aurrekontu esparrua behar bezala aplikatzea bermatzea du jomuga. Haatik, Gobernuaren abu-

ruz, salbuespenezko egoeretan, baliteke inguruar bar pertsona jakin batzuen ondorioz gomendagarria izatea balizko arau hobekuntzak balioestea, baldin eta segurtasun juridikoaren printzipioa, indarreko legedia eta laguntza publikoak eskuratzeko berdintasun printzipioa betetzen badira.

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du, Miguel Induráin Fundazioarekin eta zerbitzu juridiko eskudunekin lankidetzan, agerian jarritako egoera bereziak aztertzeko, hala badagokio, etorkizuneko deialdietan egin litezkeen doikuntzak edo hobekuntzak baloratzeko, betiere esparru juridiko aplikagarriaren barruan eta berdintasun, objektibotasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak bermatuz.

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-26/PES-00115. Galdera, Nafarroako Net Zero Tech Valley estrategiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak Nafarroako Net Zero Tech Valley strategiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak 11-26/PES-00115 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako eta Zero Tech Valley Estrategiari buruz. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horren inguruan:

Egindako galderak jada erantzun ziren 11-26/PEI-00356 ekimenari emandakoetan. Ekimen horretan jada jakinarazi zen, hala, Nafarroako Net Zero Tech Valley planaren definizioa bera zela estrategia, eta 2026ko ekainean ekimenaren dokumentu zirriborro bat izanen dela aurreikusten dela.

Aintzatetsiak izateko aurkeztutako proiektuei edo Nafarroako Gobernuaren partaidetza izaten ahal duten proiektuei dagokienez, alderdi honek jada erantzundakoa aipatzen du; hala, gogorarazten du ez dela proiekturik aurkeztu eta ez dela ezein proiektutan parte hartu, orain arte ez baitago proiekturik zehaztuta.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-26/PES-00116. Galdera, Iruñeko aireportuko aire bidezko konexio berrien lizitazioa argitaratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Iruñeko aireportuko aire bidezko konexio berrien lizitazioa argitaratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatzizko erantzunerako eginiko 11-24/PES-00116 galderari dagokionez, hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lizitazioa prozesuan dago, Konektibitate Mahaia osatzen duten ordezkari publiko eta pribatuekin hitzartutako denboren barruan.

Egungo testuinguruak egoeraren araberako oztopo ugari ditu, komunikabideetan agertzen direnak, Konektibitate Mahaian aztertuak eta sai-

lak egindako hainbat esku-hartze publikotan jakinaraziak. Egoera hori gorabehera, Nafarroako Gobernuak lizitazio berriak abiarazteko konpromisoari eusten dio, 2026an lanean hasteko, eta 2027an aurretiaz prest egoteko, urte horretan aurreikusten baitira aukera gehiago.

Nafarroako eragile publiko, sozial eta ekonomikoekin –Konektibitate Mahaian ordezkatuekin– adostutako helmugak mantentzen dira, baina arreta berriz bideratzen da helmuga nazionalera, puntutik puntura eta konexioen hub gisa, eta 2027rako nazioarteko zuzeneko konexioetan lan egiten da.

AENak pizgarri programa bat dauka Iruñeko aireporturako tasei dagokionez, bai eta trafikoa eta eragiketak suspertzeko beste neurri batzuei –airelineei zuzendutako pizgarri ekonomiko garrantzitsuak dakartzatenei– dagokionez ere.

<https://www.aena.es/es/aerolineas.html>

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 19an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-26/PES-00117. Galdera, Nafarroako Ubidearen “etorkizuneko erabileren” 2068ra bitarteko aurrerakin ekonomikoak eta interesak itzultzeko epea aldatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Ubidearen “etorkizuneko erabileren” 2068ra bitarteko aurrerakin ekonomikoak eta inte-

resak itzultzeko epea aldatzeari buruzkoa, 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ubidea exekutatzeko eta finantzatzeko –eta, zehazki, azpiegitura Bigarren Fasea eraikiz azpiegitura osatzeko– hitzarmenari buruz (11-26/PES-00117). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1. Zergatik onartu da Nafarroak 2013tik Canal de Navarra SA merkataritza-sozietateari egin dion 77 milioi euroko aurrerakin ekonomikoaren itzulketaren atzerapena, aurrerakina itzultzen hasiteko epea 2027tik 2055era igarota, eta itzulketa 2040. urtean ez baizik eta 2068. urtean amaituta, hau da, aurreikusitakoa baino 28 urte geroago?

Canasako Kontseiluak proposatu du aurrerakin ekonomikoaren itzulketa 2027tik 2055era atzeratzea, Nafarroako Ubidearen proiektuaren beharrezko finantzaketa osatzeko azterketa ekonomiko-finantzarioaren ondorioz, Nafarroako Ubidearen eraikuntzaren eta ustiapenaren garapen finantzarioa errazteko eta erabiltzaileen, ureztatzaileen eta ur edangarriaren eta industria uraren horniduraren arazoizko tarifak bultzatzeko.

2. Adierazten da 77 milioiengatik sortuko den interesa ez dela izanen 2013an itundutako % 3a, baizik eta % 2,5a. Zergatik jaitsi da hasieran hitzartu zen interes-tasa, horrek Nafarroako Ogasunari ekarriko dion galera ekonomikoarekin?

% 3tik % 2,5era jaiste horren helburua Nafarroako Ubidearen erabiltzaileentzako tarifa merkeagoak sustatzea da, bai hornidurari dagokionez, bai ureztatzeari gagozkiola. Erabiltzaileek hartzen dute, izan ere, beren gain interes horien kostua, eta mailegua tarifen bidez itzultzea.

3. Kuantifikatu al da % 0,5eko murrizketa duen interes txikiago horrek Nafarroako Ogasunari suposatuko diona?

Azaroaren 26ko 35/2013 Foru Legearen bidez baimendutako eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren urtarilaren 22ko 13/2014 Foru Aginduari bidez onetsiriko eta esperotako erabilerengatik aurrerakinak % 3ko interesa sortzen du 2040ko ekitaldira arte (orduan baliogabetzen da erabat mailegua).

Onartutako itzulketa egutegiaren arabera, Nafarroako Gobernuak 77 milioi euro ordainduko ditu 2014tik 2026ra, eta % 3ko interes inplizitua metatuko dute horiek amortizazioa hasi arte

(2027). Horrela, 2027tik aurrera amortizatu beharreko kapitala 96,8 milioi eurokoa izanen da. Egunetegi horren arabera, itzulketen zenbateko osoa 122,1 milioi eurokoa da, eta horrek esan nahi du jaso beharreko interesen zenbateko osoa 45,1 milioi eurokoa dela.

Akordio proposamen berriarekin, interes-tasa aldatu egingen da aldaketa hori onartzen den ekitalditik aurrera (% 2,5ekoa izatera igaroko da).

Aldaketa hori egiteko, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzak hitzarmena berriro eguneratu behar da. Halaber, bi administrazioek onetsi egin behar dute hitzarmen berria, eta ordutik aurrera jakinen da aldaketa indarrean jarriko den data zehatza, hala badagokio, aldaketaren eragina kuantifikatu ahal izateko.

4. Canal de Navarra SArekin sinatutako akordioan aurreikusita zegoen 2027. eta 2040. urteen artean 28,268 milioi euro ordainduko zirela guztira, iragartzen duen itzulketaren atzerapenarekin. Urte horietan zenbateko horiek Nafarroako Ogasunari ordaintzen jarraituko al zaizkio, edo galdutzat ematen al dira, eta, beraz, Canasak bere diruzaintzan inolako kosturik gabe izaten jarraituko du 77 milioi horiek finantza aktiboetan inbertituz bere onura eskusiborako, 2055ean printzipalaren itzulketa hasi arte gehi hitzartutako interes berriak?

Nafarroako Gobernuaren eta Canasaren artean izenpetutako aurrerakin ekonomikoko kontratuan jasotzen denez, 2027tik 2040ra bitartean egingen zen itzulketa, 122,1 milioi guztizko zenbatekoarekin; horietatik 45,1 interesei zegozkien, eta 77, berriz, amortizatu beharreko kapitalari.

2025eko abenduaren 31ra arte, ordaindutako guztizko zenbatekoa 75,65 milioi eurokoa izan da, eta pilatutako zorra (% 3an kapitalizatua) 92,7 milioi eurokoa.

Planteamendu berriarekin, epe horretan dagozkion interesak sortzen jarraituko da, eta printzipalaren itzulketak gehi interesak, berriz, 2055etik aurrera egingen dira. Zenbateko osoa itzuliko da dagozkion interesekin, bai ordura arte sortutakoekin, bai etorkizunean sortuko direnekin.

Bestalde, kontratuaren klausulen arabera, Canasak Nafarroako Ubidea eraikitzeke erabili behar du aurrerakin ekonomikoa. Gainera, Canasaren diruzaintzak edo finantza aktiboek lortutako diru-sarrerak proiektua finantzatzeko erabili behar dira, erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifa

murritzuz, eta, beraz, ez diote mozkinik ekarri behar sozietateari.

5. Nafarroako Gobernuaren ez al du uste, 2027tik 2055era bitartean Canasak ez badu ezer ordaintzen Nafarroaren eskutik 2013az geroztik jasotzen ari den diru horrengatik, kalte larria egiten ari al zaiola Nafarroako Ogasunari?

2014ko abuztuaren 11n aurreikusitako erabile-retarako aurrerakin ekonomikoko kontratuak jasotzen du jasotako kapitala guztiz itzuli arte urteko interesa sortuko duela. Beraz, ez zaio kalterik eragiten Nafarroako Ogasunari.

6. Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasearen Proiektuko obrak finantzatzeko beharrezkoak diren 77 milioi horietatik, zergatik Estatuak ez du sozietatean duen partaidetzaren arabera legokion % 60ko ekarpena egin behar?

Canasa estatu sozietateak eraikitako Nafarroako Ubidea Administrazioek emandako funts propioen % 50ek finantzatzen du (Espainiako Gobernuak emana da % 60, eta Nafarroako Gobernuak emana, berriz, % 40). Eta guztizkoaren gainerako % 50 maileguak hitzartuz finantzatzen da. Mailegu horiek berreskuratzeko, tarifak ezarriko zaizkie urreztatze eta hornidura erabiltzaileei.

Maileguen bidez eman behar den % 50 horren barruan kokatzen da "Aurrerakin ekonomikoa, espero diren erabileren kontzeptuan", Nafarroako Gobernuak Canasari eman ziona, erakunde pribatu baten bidez kudeatu beharrean, eta horren bidez kapitala % 3ko interesarekin itzultzea erabaki zen. Gauza jakina den bezala, erabaki hori Par-

lamentu hauek baimendu zuen honen bidez: 35/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, zeinak ezartzen baitu, batetik, zein urtaldiri egotziko zaien Nafarroako Gobernuak Canal de Navarra SA sozietateari "Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerak" kontzepturako ematea hitzartua duen diru-aurrerakinaren finantza-gastua (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Nafarroako Ubidea eraikitze lankidetzaren hitzarmenaren gaurkotze-agiriaren bosgarren klausularen araberrako diru-aurrerakina), eta bestetik, 8.500.000 euroko kreditu berezia emanen dela 2013ko gastuak finantzatzeko.

7. Zergatik aurreratu behar ditu Nafarroak 77 milioi euro horiek eta Estatuak ez du inolako ekarpenik eginen, halako moduan non erabiltzaileek beren tarifetan printzipala eta interesak itzultzeko kostua jarri beharko duten, gastu hori 2055 eta 2068 artean atzeratu bada ere?

77 milioien aurrerakina Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Ubidea eraikitzeke sinaturiko lankidetzaren hitzarmena gaurkotzeko hirugarren akordioa (2013ko abuztuaren 28a) betez gauzatzen da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 20an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-26/PES-00118. Galdera, etxeko eta zaintzen arloko emakume langileen diskriminazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Oihana Gallo San Román andreak etxeko eta zaintzen arloko emakume langileen diskriminazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru

Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Oihana Gallo San Román andreak idatziz erantzuteko galdera egin du 11-26/PES-00118 eskariari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

1. Etxeko eta zainketen esparruko langileen aurkako zenbat diskriminazio kasu artatu dituzte Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuek? Nola jokatu da kasu horietan?

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak migratutako biztanleei zuzeneko arreta emateko hainbat zerbitzu publiko ditu. Besteak beste, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Arreta Zerbitzua (AXAZ) eta Atzerriartasunaren Arloan Arreta eta Aholkularitza Emateko Zerbitzua (AAAZ).

AXAZk lau kasu artatu zituen 2025ean, eta horien diskriminazio esparrua enpleguan kokatzen zen, zehazki, etxeko lanarekin eta zaintza lanekin lotutako jardueretan, nola familia etxeetan, hala adinekoentzako egoitza baliabideetan. Halaber, etxeko emakume langileek egindako bi kontsultari erantzun zien.

2026ko urtariletik apirilera bitartean, etxeko eta zaintzako langileei dagozkien hiru kasu erregistratu dira.

Kasu guztiei zerbitzuak ematen duen arreta integrala eskaini zitzaion: gizarte eta hezkuntza arreta, arreta juridikoa eta arreta psikologikoa.

Bestalde, AAAZn ez da horrelako diskriminazio kasurik jaso, baina kasu batzuetan badirudi lan abusua egon dela egoera administratibo irregularraren egonik etxeetan eta zaintza lanetan diharduten emakume migratuen aurka. Kasu horietan, dituzten eskubideei buruzko informazioa eman zaie, bai eta arlo horretako beste baliabide batzuei buruzkoa ere: NABIren zerbitzuak, AXAZ, etab.

2. Prestakuntzako zenbat esku-hartze egin dira antirrazakeriari eta feminismoari buruz zainketetan eta mendekotasunean esku hartzen duten langileekin?

2025an honako prestakuntza jarduerak hauek egin ziren:

- SOS Arrazakeria Nafarroak "Arrazakeria eta Xenofobiaren aurkako prebentzio eta borrokarako estrategiak antirrazakeriaren ikuspegitik" proiektua garatu du, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak finantzatuta. Horren barruan, "Atzerriarrei buruzko Legea, arrazakeria instituzionalaren paradigma" izeneko bi prestakuntza saio egin ziren, etxeko eta zaintzako langile diren emakume migratuentzat, bakoitza 4 ordukoa.

- Zaska Nafarroak, 2025erako Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmenaren esparruan, lau prestakuntza jarduerak gauzatu ditu, batez ere etxeko eta zaintzako eremuan diharduten emakume migratuei zuzendutakoak. Guztira 29 ordu eman dira eta 11 nazionalizatetako 97 emakumek parte hartu dute horietan.

3. Arrazakeriaren aurkako Planean aipatzen diren arraza diskriminazioko, xenofobiako edo interseksionalako gertakarien aurrean jarduteko eta salatzeko protokoloetan, berariaz jasotzen al da etxeko eta mendekotasuneko langileen diskriminazioaren kasua?

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako 2021-2026 Planak jarduketako protokoloak aktibatzea proposatzen du arrazagatiko eta jatorri etniko/migratzaileagatiko bereizkeriaren eta bereizkeria interseksionalaren aurrean, eta gorroto delituen aurrean, pertsona babesteko neurri zehatzekin bereizkeria esparruaren arabera (administrazio publikoa, lana, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, kirola eta aisia, eta denbora libre).

SARXen jarduketako protokolo orokor bat dago arraza edo jatorri etniko/migratzaileagatiko diskriminazio orori eta diskriminazio interseksionalari erantzuteko, eta protokolo horrek etxeko langileentzako diskriminazio kasuak eta mendekotasun kasuak bilzen ditu.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 19an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-26/PES-00119. Galdera, PFEZaren deflaktazioari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irene Royo Ortín andreak PFEZaren deflaktazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko apirilaren 30eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Irene Royo Martín andreak –Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentariak– Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikuluen arabera egindako idatzizko galderari dagokionez (11-26/PES-00119):

Ezarri beharreko neurri fiskalen inguruko erabakiei dagokienez, horretarako gaitutako Fiskalitate Mahaian elkarrikketa eta negoziatio prozesu bat gauzatu ondoren hartuko ditu Gobernuak.

Hori horrela da edozein neurri fiskal Nafarroako Parlamentuan onartu beharko litzatekeen zerga neurriei buruzko hurrengo lege batean sartu behar delako.

Gaur egun, Fiskalitate Mahai horrek aldizkako bilerak egiten jarraitzen du eta, horrenbestez, goiz da oraindik bertako erabaketan aurrera egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 19an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-26/PES-00120. Galdera, suizidioa prebenitzeko eta hiltzen laguntzeko Nafarroako estratigiari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak suizidioa prebenitzeko eta hiltzen laguntzeko Nafarroako estratigiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko maiatzaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak, Leticia San Martín Rodríguez foru parlamentariak –Unión del Pueblo Navarro Talde Parlamentarioari atxikitakoak– egindako idatzizko galderaren harira (11-26/PES-00120), honako hau jakinarazi du:

Suizidioa prebenitzeko Nafarroako estratigia osasun publikoaren eremuan kokatzen da, eta

ebidentzia zientifikoaren zati batek adierazten du jokabide suizida gehienak esku-hartze kliniko eta sozialaren bidez heltzen ahal zaien sufrimendu egoerekin lotuta daudela. Suizidioa fenomeno poliedriko eta faktore anitzekotzat jotzen da, gizarte osoak modu integralean heldu beharrekoa. Estrategiak argi uzten du ez dela osasun arazo hutsa, eta sintomaren oinarrian beti ez dagoela nahaste mental bat.

Alabaina, ikuspegi hori ez dago kontraesanean 3/2021 Lege Organikoan ezarritakoarekin. Lege horrek berariazko kasu bat arautzen du, berme juridiko eta sanitario zorrotzekin, sufrimendu larria, kronikoa eta ezingarria edo gaixotasun larri eta sendaezina duten pertsonen dagokienez, legeak berak zehaztutako moduan. Bi esparru horiek errealitate desberdinei erantzuten diete:

- Suizidioa prebenitzeko estratigiaren helburua, orokorrean, arrisku egoerak garaiz detektatzea, esku hartzea eta lagun egitea da, halako egoerak tratatzen edo arintzen ahal direlako printzipioaren arabera.

- Eutanasiaren legeak salbuespenezko prozedura bat ezartzen du, indibidualizatua, bermatzailea eta ez dena sartzeko prebentzioaren xedea den jokabide suizidan, kondizio espezifikoetan aitortutako eskubide bat erabiltzean baizik.

Horrenbestez, Nafarroako estrategiak ez du aurreuposatzen hiltzeko nahi oro automatikoki interpretatu behar denik sintoma kliniko tratagarri gisa; alabaina, bere eskumenen esparruan, eskuhartzea eskatzen duen sufrimenduaren preben-

tzioaren, ebaluazioaren eta arretaren printzipioari jarraikiz dihardu, eutanasiaren arloan indarrean den legediak araututako esparrua inbaditu gabe.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00121. Galdera, Nafarroako Kultur Ondarearen Institutua proiektuaren garapenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Nafarroako Kultur Ondarearen Institutua proiektuaren garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko maiatzaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-26/PES-00121 galdera idatzia egin du Nafarroako Kultura Ondarearen Institutuaren proiektuari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoaren kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Hirigintza aldaketa Iruñeko Udalaren Osoko Bilkuran egin zen, zehazki, 2026ko maiatzaren 7ko ohiko bilkuran, onar zedin, "II. Integrazio Unitateko S1 sektoreko Buztintxuri-Euntzetxiki-Santa Engrazia Plan Partzialaren zehaztapen xehatuen aldaketa (7. poligonoko 2648, 2649 eta 2650 lurzatiak)" espedientearen bidez.

2026ko maiatzaren 12an, Iruñeko Udalak hartutako behin betiko erabakiaren komunikazio formala jaso da, bai eta dagokion hirigintza izapidez benetan amaitu delako jakinarazpena ere.

Proiektu arkitektonikoaren aurreko azterlan osagarriari dagokionez, etorkizuneko Nafarroako Kulturaren Espazio Teknikoaren zehaztapenean aurrera egiteko beharrezkoak diren hainbat lan tekniko egin eta entregatu direla jakinarazi da. Multzoaren jasotze topografikoa 2026ko otsailan amaitu eta entregatu zen. Era berean, 2025eko azaroan "Refena museo biltegietarako klimatizazio eta efizientzia energetikoari buruzko txostena" izeneko dokumentua eskatu eta jaso zen. Dokumentu horren helburua exekutatu beharreko instalazio posibleak aztertzea eta efizientzia energetikoarekin lotuta horiek izaten ahal duten inpaktua aztertzea izan da, Refenako instalazioetan Nafarroako Kulturaren Espazio Teknikoa ezartzearen esparruan.

Bestalde, nola egitura azterketa hala segurtasun eta irisgarritasun araudiari lotutako azterlanak etorkizuneko exekuzio proiektu arkitektonikoaren berezko edukiaren parte dira. Ondorioz, lan horiek dagokion proiektu teknikoaren lizitazioaren eta idazketaren esparruan egingen dira, lan horiek zehazteko proposamen arkitektoniko zehatz eta xehakatu bat behar baita.

Azkenik, etorkizuneko Nafarroako Kultura Ondarearen Institutuaren proiektu arkitektonikoaren lizitazioari dagokionez, jakinarazten da lizitazio hori ezin zela hasi harik eta plangintza Refena multzoarentzat aurreikusitako funtzio publiko berrira egokitzeko beharrezko hirigintza aldaketa behin betiko onetsi arte. Hori, hain zuzen ere, galdera idatzi hau sinatzean jaso da. Behin betiko

onespen horrekin, etorkizuneko Nafarroako Kultura Ondarearen Institutuaren proiektu arkitektonikoren lizitaziorako beharrezko izapide administratibo eta teknikoak bultzatuko dira, oinarritzko proiektuaren eta exekuzio proiektuaren idazketa

barne harturik, bai eta obren zuzendaritza fakultatiboa ere.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak aurrekontuko partida bat du kontsignatuta 2027an horretarako:

A20001 A2100 6020 337200 Nafarroako Kulturaren Espazio Teknikorako Proiektua	600.000
--	---------

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-26/PES-00122. Galdera, Palestinaren okupazioarekin zerikusia duten enpresei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak Palestinaren okupazioarekin zerikusia duten enpresei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko maiatzaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko kide Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera idatziaren harira, honako gai hauei buruz galdetu du: Gobernuak zer neurri hartuko dituen CAF eta halako enpresek Palestinan lege kanpoko okupazioa sendotzen duten azpiegituretan jarduerak eten ditzaten ziurtatzeko, Gobernuak nola berrmatuko duen enpresa horrek finantzaketarik edo kontratu publiko gehigarririk ez jasotzea, eta zein ekintza eskatuko zaizkion CAFi, behin fiskaltzak abiarazi duela ikerketa bat CAFek Jerusalem duen eginkizunari buruz. Honako hau adierazi du, horren harira, Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak:

Lehenik eta behin, eta nola ez, Nafarroako Gobernuak ordenamendu juridikoa bete behar du, eta, beraz, enpresa baten aurkako edozein ekintza antolamendu horren barruan kokatu behar da ezinbestean.

Bigarrenik, galdera idazkian adierazten den bezala (et egia da), hasierako une batean gaude, eta badirudi, salatzaileek diotenez, fiskaltzak berretsi egin duela salaketa jaso eta horren ikerketa abiarazi dela. Beraz, zuhurra da ustezko delitu egitate horiek aztertu eta, hala badagokio, epaitu behar dituztenei lan egiten uztea. Hortik aurrera, ordenamendu juridikoaren barruan zer aukera ditugun baloratu beharko da.

Finantzaketari eta kontratu publikoei dagokienez, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak, I. tituluko II. kapituluko 2. atalean, lizitatzaila baztertzeko arrazoiak arautzen ditu. Hala, 22. artikulua eta hurrengoek kontratatzeke debekuak ezartzen dituzte, eta lizitazio prozeduretan parte hartzetik kanpo geratzen dira aipatutako inguruabarren batean dauden pertsonak edo entitateak; halako inguruabarrak hautematea; halako inguruabarrak aitortzeko eskumena eta prozedura, eta abar.

Gauza bera gertatzen da Dirulaguntzei buruzko Foru Legeari dagokionez ere, 13. artikuluan onuradun edo erakunde laguntzaile izateko baldintzak ere arautzen baititu.

Fiskaltzak ikerketa bat ireki ondoren CAFi eskatuko zaizkion behar bezalako arretazko ekin-tzei dagokienez, lehen adierazi dugun bezala, oso hasierako une prozesalean dago, non ikerketa penal bat gertatzen ari den eta, hala badagokio, salatutako pertsonen beren eskubideak baliatzen ahal dituzten. Beraz, errugabetasun-presuntziorako eskubidea errespetatu behar dugu, eta, azkenean kondena penala gertatuz gero, horren arabera jardun, ordenamendu juridikoaren barruan betiere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 26an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

11-26/PES-00123. Galdera, Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko urteko txostenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko urteko txostenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko maiatzaren 15eko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 11-26/PES-00123 eskariari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazterriko eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak noiz igorriko du, 28/2018 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoaren arabera, etxebizitzarako eskubide subjektiboari buruzko urteko txostena, barne dela Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko informazioa (2025eko ekitaldiari buruzkoa)?

2026ko ekainaren 1ean igorri da hori.

Nafarroako Etxebizitzaren Behatokiak gaur egun ez ditu jasotzen Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko urteko txostenak, eta ez dauka atal espezifiko bat tresna horri bideratua, ez eta Nafarroan hutsik dauden etxebizitzetako buruzko daturik

ere, nahiz eta urteko txosten guztietan azpimarrazten den horien garrantzia. Zergatik?

Behatokia aurkeztean adierazi zen bezala, tresna hori hasierako bertsio batean zabaldu da, oinarritzko 16 agente taularekin. Taula horiek, funtsean, Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak egin ohi dituen hiruhileko txostenetan jasotzen diren adierazleei dagozkien. Hazten jarraitzeko eta estatistika eta adierazle berriak sartzeko asmoa du Behatokiak. Izan ere, aurreikuspenen arabera, hurrengo egunetan beste bi agente taula argitaratuko dira, jenderik gabekotzat aitorturiko etxebizitzetako buruzko estatistikarekin eta jenderik gabeko balizko etxebizitzetako buruzko estimazioekin.

Aurreikusten al du Nafarroako Gobernuak berrazko espazio bat gaitzea Nafarroako Etxebizitzaren Behatokian, etxebizitzarako eskubide subjektiboari buruzko urteko txostenak eta zehazki Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzkoak sistematikoki, modu eskuragarrian eta gaurkotuan argitaratuko direla bermatuko duena?

Jada adierazi den bezala, hurrengo egunetan informazio hori biltzen duten bi agente koadro berri argitaratuko dira.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazterriko eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-26/PES-00124. Galdera, onura publikoko 191 zenbakiko mendiari (“Las Selvas”) buruzko bateragarritasun- edo gailentasun-deklarazioaren gainekoa, Geoalcali, SLk sustatutako Mina Muga proiektuari dagokionez

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, onura publikoko 191 zenbakiko mendiari (“Las Selvas”) buruzko bateragarritasun- edo gailentasun-deklarazioaren gainekoa, Geoalcali, SLk sustatutako Mina Muga proiektuari dagokionez, 2026ko maiatzaren 15eko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Hona hemen Adolfo Araiz Flamarique foru-parlamentariak –EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikiak– Nafarroako onura publikoko mendien katalogoan jasotako mendi edo baso lurri eragiten ahal dieten proiektuekiko bateragarritasunaren aitortpenari edo prebalentziari buruz (Geoalcali SL merkataritza-sozietateak “Las Selvas” 191 onura publikoko mendian bultzatutako Mina Muga meatzaritza proiektuaren gainekoa da hori) idazki bidez egindako 11-26/PES-00124 galderari Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emandako erantzuna:

1. Geoalcali SLk eskaturik al dauka Mina Muga proiektuaren bateragarritasun edo lehentasun aitortpena 21 hektarea horien okupazioari dagokionez?

Geoalcali SLk Mina Muga proiekturako zortasunak eta aldi baterako okupazioak baimentzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuko Basoak Kudeatzeko Atalari, onura publikoko mendi katalogatuetan.

2. Eskabide hori noiz aurkeztu zen?

2023eko otsailaren 10ean aurkeztu zen eskabidea.

3. Zein administrazio-egoeratan dago espedienteak? Noiz uste da ebatziko dela?

Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legea garatzearren otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretu bidez onetsitako Mendien Erregelamenduaren 50. artikuluan

aurreikusirikoa da katalogaturiko mendietan aldi baterako okupazioak eta zortasunak baimentzeko prozedura.

Artikulu horren seigarren puntuan ezartzen da, hala, onura publikoko mendietan aldi baterako okupazioak eta zortasunak baimentzeko prozedura.

«6. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hau izanen da espedientearen izapidetzea:

a) Sustatzaileak basogintza-alorreko administrazioari egindako eskaera, egin nahi den aldi baterako zortasun edo okupazioaren memoria deskribatzailearekin batera. Memoria horretan justifikatu egin beharko da zortasun edo okupazio hori bateragarria dela mendiaren onura publikoarekin edo izaera babeslearekin, bai eta 3. paragrafoan ezarritakoa betetzen dela eta mendiaren titularraren titulu nahikoa duela ere aldi baterako okupazio edo zortasun ezarpen hori egiteko, baldin eta sustatzailea ez bada mendiaren titularra, edo okupazioa edo zortasuna ez bada obra publiko bidez ezarria edo Nafarroako Gobernuak interes publikokotzat aitortua.

b) Entzunaldia mendiaren titularrari.

c) Mendi kokatuta dagoen tokiko erakundeko iragarki-taulan argitaratzea, hamabost egun naturaleko epean.

d) Basogintza-alorreko administrazioak artikulu honetako 4. apartatuan aipaturiko kanonaren edo kalte-ordainaren balorazio teknika egingen du.

e) Basogintza-alorreko administrazioak, eginko jardunaren arabera, nahitaezko txosten loteslea egin dezan eskatuko dio ingurumenari.

f) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendietako kontseilariaren Foru Agindua».

Basoak Kudeatzeko Atalaren 2023ko otsailaren 17ko txostenaren bidez, txostenaren edukia eta sustatzaileak aurkezturiko memoria eta planoak Zangozako Udalarari helarazi zitzaizkion, proiektuaren eraginpeko onura publikoko mendiaren titularra den aldetik.

Horrela, entzunaldia egiten zaio mendiaren titularrari, hamabost egun naturaleko epean bere iragarki-taulan argitaratu dezan eta Mendien Erre-

gelamenduan adierazitako izapidetzearen hurrengo urratsak egiten jarraitze aldera.

Udalak toki-erakundeko iragarki-taulan argitaratu du aurreko informazioa –2023ko otsailaren 27tik martxoaren 15era bitartekoa–, eta Asociación Ecologistas en Acción de Sangüesa/Ongaiz elkarteak alegazioak aurkeztu zituen.

2023ko martxoaren 6an, Zangozako Udalak, mendiaren okupazioari buruzko memoriaren publikitatearekin batera, Geoalcalik onura publikoko mendien bateragarritasunari buruzko espedientearen bidaliriko dokumentazioari buruzko argibideak eskatu zizkion Basoak Kudeatzeko Atalari, zehazki, Zangozako udal mugarteko 8-659, 8-222 eta 7-860 lurzatien azalerei dagokionez.

Argibide horien erantzunaren zain egon gabe, 2023ko martxoaren 17an, Zangozako Udalak Asociación Ecologistas en Acción de Sangüesa/Ongaiz elkarteak jendaurreko informazioaren izapidean aurkezturiko alegazioak bidali zizkion Basoak Kudeatzeko Atalari.

2023ko apirilaren 4ko data duen txostenaren bidez, Basoak Kudeatzeko Atalak Zangozako Udalari jakinarazi zion, 2023ko martxoaren 17an bidalitako argibide eskaeraren ondorioz, Geoalcalik 2023ko otsailaren 10ean aurkezturiko zortasunaren edo okupazioaren memoria deskribatzailea aldatu duela eta, horren ordez, erregistro bidez 2023ko martxoaren 31n aurkezturiko memoria berri bat aurkeztu duela. Memoria hori berriro bidali zitzaion Zangozako Udalari, zegozkion ondorioak izan zitzaizkien.

Zangozako Udalak, 2023ko ekainaren 14an, jakinarazi zuen dokumentazioa berriro argitaratu zela, memorian aldaketa txiki batzuk egin baitziren maiatzaren 2tik 18ra, baina epe horretan ez zela alegaziorik aurkeztu Udaleko Erregistroan.

Hortik aurrera, eta prozedurarekin jarraitzeko, Nafarroako Mendien Araudiak adierazten du Geoalcalik mendiaren titularrari (Zangozako Udala) onura publikoko mendia okupatzeagatik ordaindu behar dion kanon eguneragarriaren edo kalte-ordainaren balorazio teknika egin behar dela. Mendien Erregelamenduak berak 50.4 artikuluan ezartzen duenez, kanona edo kalte-ordaina ezinbestean izan beharko du mendiari eragiten zaizkion mota guztietako kalteen arabera edo zortasunak edo okupazioak sustatzaileari ematen dizkion onuren arabera.

Kontuan hartuta, alde batetik, mendiaren ezauzgarriengatik, eta, bestetik, proiektatutako meatze instalazioaren nolakotasunengatik, alde ikaragarria dagoela mendiari egiten ahal zaion kaltearen

eta okupazioak sustatzaileari ekartzen ahalko dizkion onuren artean. Erregelamenduak ez du adierazten noiz gailendu behar den kaltearen balorazioa edo noiz emandako onurarena.

Egoera horretan, basogintza-alorreko administrazioaren jokabidea izan da beti mendiaren titularrari eskatzea akordio bat lor dezala mendiaren sustatzailearen eta titularraren artean kanona finkatzeari dagokionez.

Hala, 2023ko ekainetik 2024ko urrira, Zangozako Udala eta Geoalcali harremanetan egon ziren kanona finkatzeko akordio batera iristeko eta akordio horren edukia basogintza-alorreko administrazioari helarazteko, Onura Publikoko Mendia okupatzeko administrazio-prozedurarekin jarraitzeko, baina, dirudienez, oraingoz ez da halako akordiorik hezurmamitu.

Izan ere, Geoalcalik berak, geroago basogintza-alorreko administrazioari bidalitako dokumentazioan –zehazki, 2025eko maiatzaren 2an bidalitako instantzian–, non, besteak beste, proiektuaren egoeraren historikoa egiten den, honako hau aipatzen du hitzez hitz: "Hilabeteak gai horretan aurrera egin gabe igaro ondoren, Geoalcalik okupazio kanonaren balorazioari buruzko proposamena bidali zuen 2024ko uztailaren (email bidez), eta, handik egun batzuetara, bi alderdien arteko bilera egin zen, udal korporazioko ordezkariak bertan zirela, proposamen hori eztabaidatzeko, eta ondorioztatu zen Udalak egokien iritzitako baldintzetan erantzunen zitzagula (nola hura onetsita hala beste bat proposatuta). Alabaina, Udalak ez zuen sekula halako erantzunik jaso".

2024ko urriaren 18an, Geoalcalik, Basoak Kudeatzeko Atalari zuzendutako instantzia orokorraren bidez, idazki bat aurkeztu zuen, espediente izapidetzen jarraitzeko eskatuz, eta interpretazio idazki bat aurkeztu zuen, bere ustez kanon hori nola kalkulatu beharko litzatekeen azaltzeko. Izan ere, kanon hori honela kalkulatu beharko litzateke: "okupazioak sortuko lukeen kaltearen arabera –hau da, gainerako pertsonen finka horietara sartzeko duten mugaren arabera edo araudian aurreikusitako beste helburu batzuk gauzatzearen arabera–, kanona ezartzeko kontuan hartu behar den prezioa Nafarroako Gobernuak 2023rako argitaratutako landa errentamenduko kanonari jarraikiz ezartzen ahal da [...] edo, bestela, Udalak 2017an eginiko enkantean gauzaturiko egintzen arabera (lursail horietarako balio bat ezarrita)".

Handik egun gutxi batzuetara, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu eta indarrik gabe utzi zuen Nafarroako Gobernuak Industria

Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena, "El Goyo" baimenaren ustiapena ematen duena, Mina Muga osatzen zuten hiru meatzaritza baimenetako bat, "zuzenbidearen aurkako proiektua zatitu egin delako", ustiapen emakidarako estatuko izapidetze prozedura bakar bat egin behar zela iritzita.

Basogintza-alorreko administrazioak, administrazio egintzetako zuhurtasun printzipioan oinarrituta, ez du aurrera egiten onura publikoko mendiaren okupazioaren administrazio izapidetzean, behin betiko meatzaritza ustiapenaren emakida ebazten ez den bitartean.

2025eko maiatzaren 2an, Geoalcalik beste idazki bat aurkeztu zuen Baso Administrazioaren aurrean, honako hau jakinarazteko: "espedientea hasi zenetik bi urte baino gehiago igaro direnez ebazpenik eman gabe, eta Zangozako Udalarekin akordio bat lortzea ezinezkoa denez, Atal honi jakinarazi zitzaien formalki amaitutzat eman zirela toki erakundearekiko negoziazioak, eta Basoak Kudeatzeko Atal honek baimena berehala ebazteko eskatu zitzaion, kanona zehazteko 2024ko urrian aurkeztutako irizpide objektiboetan oinarrituta. ERANSKIN gisa aurkeztu da Zangozako Udalari 2024ko apirilaren 16an egindako jakinarazpena, kanona zehazteko negoziazioak amaitu direla jakinarazteko". Kanona ezartzeko 2024ko urrian aurkeztutako irizpide objektiboetan oinarrituta, OPMaren aldi baterako zortasun eta okupazio espedientea berehala ebazteko eskatzen dizuegu.

Haatik, idazki horren I. eranskinak, onura publikoko mendiaren izapidetzearen kronologiaren historikoa egiten duenak, adierazten du ezen, basogintza alorreko administrazioari 2024ko urriaren 18an egindako eskaeraren ondoren, "Atalak berak espedientea ahalik eta lasterren ebatzi beharra jakinaraztea lortzen duela", "espedientea oraindik ere ebatzi gabe dagoela, eta, beraz, 2025eko otsailean Udalak egindako bilera eskaera bat aprobetxatuz, eta kanona adosteko azken ahaleginean, berriz ere errepikatzen da 2024ko uztailean proposamena bidali zela baina ez zela erantzunik eman. Era berean, tokiko erakundeari berriz ere eskatzen zaio balorazio bat bidaltzeko enpresari. Udalak berriz ere 2025eko otsailaren 17a baino lehen erantzuteko konpromisoa hartu du, eta gaur arte ez da inolako jakinarazpenik jaso, nahiz eta enpresa honek hainbat gogorazpen egin dituen".

Arestian azaldutakotik ondorioztatzen ahal da kontraesana dagoela "2024ko apirilaren 16an kanona zehazteko negoziazioak amaitu egin direlako" adierazpenaren eta dokumentuaren eranskinean jasotakoaren artean: 2025eko otsailean beste bilera batzuk egiten ari dira kanona adosteko azken ahaleginean".

13. puntuan adierazitakoa oinarri hartuta, eta kontuan izanik Udalak eta Geoalcalik bilerak egiten jarraitu dutela 2024an eta 2025ean kanona adosteko eta, halaber, basogintza-alorreko administrazioa zain dagoela, alde batetik, alderdien arteko balizko akordio bat noiz lortuko, eta, bestetik, meatzaritza ustiategiaren emakidaren behin betiko ebazpena noiz emanen.

Azkenik, adierazi behar da, aurretik azaldutakoaz gain eta geroago, 2026ko ekainean, Auzitegi Gorenak izapidetzeko onartu zituela Espainiako Gobernuak, Nafarroako eta Aragoiko gobernuek eta Geoalcali enpresak aurkeztutako kasazio errekursoak, Auzitegi Nagusiak Mina Muga proiektua "El Goyo" meatzaritza emakidari buruz emandako epaiaren aurka. Horrela, gaur egunean, meatzaritza jarduera hori ustiatzeko baimena emateko jarraitutako administrazio prozeduraren berrikuspen judizialaren fasean gaude, Estatuko geografia-ko hainbat lurraldetan ginen litzatekeena.

Horrela, meatzaritza ustiapenaren emakidaren baliozkotasunaren ebazpenarekin amaitu ondoren, onura publikoko mendia okupatzeko administrazio prozedurarekin jarraituko da.

4. Eskabide hori administrazio-isiltasunez onetsi dela ulertu behar al da?

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, "isiltasunak balio ezeslea izanen du Konstituzioaren 29. artikulua aipatzen duen eske-eskubideaz baliatzeari buruzko prozeduretan, baiestearen ondorioz eskatzaileari edo hirugarren batzuei jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren gaineko ahalmenak eskuratuko litzaizkiekeen prozeduretan, ingurumenari kalte egin liezaioketen jarduerak egitea dakar tenetan eta administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan".

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-26/PES-00126. Galdera, hezkuntza-laguntzako espezialisten zerrendei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kevin Lucero Domingues jaunak hezkuntza-laguntzako espezialisten zerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko maiatzaren 15eko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztutako 11-26-PES-00126 idatzizko galderarekin lotuta, honako hau jakinarazten dut Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik:

1. AURREKARIAK

a) 2020ra arte, Hezkuntza Departamentuari atxikitako zaintzaileak D mailan bilduta zeuden, eta nola sartzeko hala aldi baterako kontratatzeko, eskola graduatuaren titulua edo baliokidea zutela egiaztatu behar zen.

2018ko martxoaren 9an akordio bat sinatu zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eta LAB, CCOO eta UGT sindikatuen artean, Enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Gobernuaren eta sindikatuen arteko II. Akordioaren lehen atalak ezarzen duena aplikatzeari buruzkoa.

Urte anitzeko akordio horretan, 2020an, Hezkuntza Departamentuari atxikitako zaintzaileei buruz lortutako akordioa jasotzen da, honela:

"2.- Hezkuntza Departamentuari atxikitako zaintzaileak.

2020an, Hezkuntza Departamentuari atxikitako zaintzaileen lanpostuaren kokapenaren C maila/taldera igotzea erabaki da. Horretarako, 2019an zehar, Hezkuntza Departamentuak aztertu egin beharko du zaintzaile lanpostuan sartzeko eskatzen ahal den titulazioaren betekizuna, lanpostu horren gaitasun profesionalak kontuan hartuta.

C mailan/taldean kokatu bai, baina zaintzaileen lanpostuak gaur egun Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autono-

moen plantilla organikoan esleiturik dituen ordainsari osagarrien ehunekoak mantenduko dira".

c) Aurreko apartatuan adierazitako Akordioan ezarritakoa betez, irailaren 16ko 10/2020 Foru Lege Dekretuaren –zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak– bitartez, zaintzaileak mailan kokatu ziren, eta izena aldatu zitzaion Inklusiorako Laguntzako teknikariaren izendapenari, eta eskatu beharreko titulazioa zehaztu zen. Era berean, Hezkuntza Departamentuak eskatuta, 5 urteko aldi iragankorra ezarri zen titulazio berria eskatzeko.

"2. artikulua. Hezkuntza Departamentuari atxikitako zaintzaileak. Inklusiorako Laguntzako teknikari bihurtzea eta C mailan/taldean sartzea.

1. Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostua sortzen da, C mailan/taldean sartzeko dena.

2. Hezkuntza Departamentuari atxikitako zaintzaileen lanpostuaren izena eta lanpostua bera aldatzen dira; izan ere, hemendik aurrera, Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostua izanen da. C mailan/taldean sartzeko da, eta zaintzaileen lanpostuak egun Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoan esleiturik dituen ordainsarien ehunekoak mantenduko dira.

3. Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostuetan sartzeko, Gizarte integrazioko goi mailako teknikari titulu berariazkoa izan beharko da; edo, bestela, Batxilergoko titulua edo baliokidea eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretaren profesionaltasun ziurtagiria. Aipatutako titulu eskatuko da lanpostu horiek eskuratzeko lehen deialdian eta foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera onesten direnetan.

4. Aurreko atalean adierazitakoa gorabehera, bost urteko bitarteko aldia ezartzen da, lege dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera, aipatutako titulu berariazkoa eskatzeko, Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostuak aldi baterako betetzen direnean. Aldi horretan, C mailako/taldeko lanpostuak betetzeko eskatzen den titulu orokorra duten izangaiek betetzen ahalko dituzte lanpostu horiek aldi baterako.

Atal honetan aurreikusitako bitarteko aldian, ez da Inklusiorako Laguntzako teknikarien lanpostu-

rik sartuko lan publikoaren eskaintzetan, langile finkoek betetzekoetan”.

Artikulu horren idazketa aldatu egin zen abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legean; zehazki, hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE), izena hartu zuten, eta ezarri egin zen hezkuntza-laguntzako espezialistaren lanpostuan sartzeko lehen hautespen prozesua (titulazio espezifiko berria eskatzen da) 2023ko maiatza amaitu baino lehen deituko dela.

Arau horien arabera, C mailako titulazio generikoa (Batxilergoa edo baliokidea) zuten HLEak kontratatzen jarraitzeko aldi iragankorra 2025eko irailaren 22an amaitzen zen.

d) Ikusirik 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen aurreproiektua egin zenean hezkuntza-laguntzako espezialisten premiak nabarmen handitu zirela eta arestian aipatutako araudian eskatutako titulazio espezifikoak zuten hautagai gutxi zeudela, Hezkuntza Departamentuak proposatu zuen 20/2020 Foru Legean aurreikusitako iragankortasuna ezabatzea, C mailako titulazio orokorra duten HLE langileak kontratatzeak aukera egoten jarrai zezan, betiere bermatuz lehenetsi egiten direla arestian aipatutako foru legean eskatutako titulazio espezifikoak duten pertsona, kontratazioari dagokionez.

Azkenik, NAOFLren 2025erako 32. artikulua honako idazketa hau jasotzen du, eta Hezkuntzaren proposamena 2026ko abenduaren 31ra mugatzen du:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzupeko langileen arloko neurriak onesten dituen irailaren 16ko 10/2020 Foru Lege Dekretuaren 2.4 artikuluan aipatzen den iragankortasun-aldia igarota, 2026ko abenduaren 31ra arte, hezkuntza-laguntzako espezialisten lanpostua aldi baterako betetzen ahalko dute C mailako/taldeko lanpostuetara sartzeko eskatzen den titulazio generikoa duten izangaiak. Nolanahi ere, lehentasuna izanen dute Gizarteratzeko Goi Mailako teknikari titulua dutenek edo, kasua bada, Batxilergo titulua edo baliokidea dutenek, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretarako profesionaltasun-ziurtagiria izanez gero”.

2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak epemuga berari eusten dio C mailako titulazio orokorra duten langileak modu subsidiarioan kontratatu ahal izateko.

e) 20/2020 Foru Legean aurreikusitako aldi iragankorra amaitzearen eta 2025erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen aurreikuspena-

ren ondorioz, Hezkuntza Departamentuak deialdi bat onartu zuen 2025eko urtarrilean, HLE gisa kontratatzeak bi izangaien zerrenda eratzeak, lehentasunezkoa bata eta subsidiarioa bestea. Era berean, bi zerrendatan bereizi zituen (lehentasunezkoa eta subsidiarioa) egonkortze prozesuan sartzeko deialdiko aldi baterako kontratazioarako hautagaiak, aurkeztu zuten titulazioaren arabera.

Egungo araudiarekin, zerrenda subsidiarioek 2026ko abenduaren 31n indarrean egoteari utziko diote.

2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTEN HORNIDURAREN AZTERKETA ETA KONTRATAZIOAREN BILAKAERA

Hezkuntza-laguntzako espezialisten arreta behar duten ikasleen kopuruak nabarmen egin du gora, eta, horren ondorioz, halako langileen kopurua nabarmen handitu da zuzkiduran: 2016-2017 ikasturtean 199 HLE izatetik 2025-2026 ikasturtean 528 HLE izatera. Hau da, halako langileen kopurua % 165 igo da aldi horretan.

Hazkunde horren ondorioz, hezkuntza-laguntzako espezialisten kontratazioen bilakaerak goranzko joera bera erakusten du, logikoa den bezala:

Horrela, 2024-2025 ikasturtean 320 HLE kontratatu ziren ikasturtearen hasierako beharrei erantzuteko, 800 ordezkapen kontratuz gainera, hainbat arrazoiengatik.

Ikasturte honetan (2025-2026), 343 langile kontratatu dira ikasturtearen hasierako beharrei erantzuteko, eta gaur egun 734 ordezkapen egin dira. Horrek agerian uzten du oso litekeena dela aurreko ikasturteko kontratazio zifrak gaintitzea (horrek langile gehiago kontratatzea eskatuko luke).

3. EGUNGO ZERRENDEN EGOERA

Lehen aipatutako araudia kontuan hartuta, hezkuntza-laguntzako espezialista gisa kontratatzeak izangaien zerrendak honako zerrenda hauez osatuta daude:

– Lehentasunezko zerrendak, egonkortzeko oposizio-lehiaketan nahiz 2025ean egindako aldi baterako proban berariazko titulazioa egiaztatu duten izangaiak osatuak.

– Zerrenda subsidiarioak, batxilergoa dutela egiaztatu duten izangaiak osatuak (C mailako titulazio generikoa), bai egonkortzeko oposizio-lehiaketan, bai 2025ean egindako aldi baterako proban.

Zerrenda horiek, era berean, zonakatze sistema baten, hizkuntzaren (gaztelania eta euskara) eta lanaldi motaren (lanaldi osoak edo mota guz-

tiak bakarrik) arabera sailkatzen dituzte izangaiak, eta deialdian izena ematean zehazten ditu datu horiek izangaiek. Hori dela-eta, oso zaila da horien kudeaketa, deiak telefonoz egiten direla kontuan harturik.

Era berean, oso korapilatsua da izangaien erabilgarritasunari buruzko datu errealak lortzea; izan ere, zerrenda bakarra ez denez, izangai bakoitzaren egoera baliteke desberdina izatea, zerrenda motaren eta eremuaren arabera.

Nolanahi ere, datu hauek nabarmendu behar dira:

– Lehentasunezko zerrendan 697 hautagai daude guztira, horietako 362 kontratatuta egonik gaur egun. Kontratuak uko egin dieten edo aurkitu ez diren hautagaiak 335 izan dira. Beraz, zerrenda hori agortuta dagoela kontuan hartuta, % 51,94ko eraginkortasuna du kontrataziorako.

– Zerrenda subsidiarioan 820 hautagai daude guztira, eta horietako 106k aurtengo ikasturtean hartu dute kontratua. Gaur egun, 417 hautagai daude, eta 297 pertsonak uko egin diete kontratuak.

Adierazi behar da ikasturtearen hasierako 343 eskaintzetatik 75 zerrenda subsidiarioko pertsonen bete zirela, eta, unean-unean izangaien bat prest jartzen ahal bada ere, lehentasunezko zerrenda ikasturtearen hasieratik agortu zela.

Azkenik, nabarmentzekoak dira Integrazio Sozialeko goi mailako teknikariaren eta Batxilergoko titulazioa izanik Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleei Arreta emateko profesionaltasun ziurtagiria duten langileak gaitzeko egindako ahaleginak. Ildo horretan, 2021ean Integrazio Sozialeko goi mailako teknikariaren urteko tituludunak 72 izatetik 2026an 126 izatera igaro dira, ziklo hori zentro gehiagotan ezartzeagatik. Aldi horretan 414 egresatu egon ziren guztira. Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleei Arreta emateko profesionaltasun ziurtagiriari dagokionez, 2020tik egin diren deialdietan (2026rako aurreikuspena barne) 628 pertsona daude.

Hau da, 2020az geroztik, ia mila pertsonak izaten ahal dute lehentasunezko zerrenda osatzeko aukera; izan ere, ikusi dugu ia 700 pertsonak osatzen dutela (697), eta ikusi dugu, halaber, kontratazioari begira duten eraginkortasuna ehuneko 50 baino gehixeagokoa dela; izan ere, 697 pertsona horietatik 362k hartu dute kontratua.

Azaldutako datu guztiak eta kontratazio premia gero eta handiagoak ikusita, ez Integrazio Sozialeko goi mailako teknikariaren ikasketen matrikulak, ezta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten Ikasleei Arreta emateko profesionaltasun ziurtagiriek ere, titulazio hori duten langileekin eskaria betetzen ahalgo dela aurreikusten da, eta, beraz, beharrezkoa da sine die baimentzea aldi baterako sartzeko aurreikuspena Batxilergoko titulazioarekin, Lanbide Heziketako erdi mailako teknikariaren tituluaren edo titulazio baliokidearekin, kontuan hartuta aldi baterako sarbide horretarako beti babesten dela Integrazio Sozialeko goi mailako teknikariaren titulazioa duten izangaien lehentasuna, edo, hala badagokio, Batxilergoko titulua edo baliokidea, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko profesionaltasun ziurtagiria izanik.

4. KONKLUSIOAK

Adierazitako datuetan funtsatuta, zerrenda subsidiarioa ezabatuz gero, ezin izanen zaie erantzun 2027-2028 ikasturtearen hasierako behar guztiei, ezta 2026-2027 ikasturtean zehar (2027ko urtarrilaren 1etik aurrera) gertatzen diren ordezkapenei ere, eta Hezkuntza Departamentuari ezinezkoa izanen zaio bermatzea hezkuntza premia bereziak izanik hezkuntza-laguntzako espezialistaren baliabidea esleituta duten ikasleen arreta.

Hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratazeko beharrei eta horiek azken urteetan izan duten bilakaerari buruzko datuak eman dira.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 27an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

HLEen zuzkiduraren historikoa Beharrianak ikasturte bakoitzeko.

Zona / Idioma	Curso										TOTAL
	2016/2017	2017/2018	2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022	2022/2023	2023/2024	2024/2025	2025/2026	
ZONA ELIZONDO	7		8	10	10	11	12	15	16	21	110
Euskera	7		8	10	10	11	12	15	16	21	110
ZONA ELIZONDO		7									7
Euskera		7									7
ZONA ESTELLA	20	21	23	26	23	25	32	37	35	34	276
Castellano	20	19	22	26	23	24	29	35	34	33	265
Euskera		2	1			1	3	2	1	1	11
ZONA IRURTZUN	6	9	15	16	16	20	23	23	20	22	170
Castellano			2	1	2	4	5	4	3	3	24
Euskera	6	9	13	15	14	16	18	19	17	19	146
ZONA LUMBIER	5	9	7	12	10						43
Castellano	4	5	4	9	6						28
Euskera	1	4	3	3	4						15
ZONA PAMPLONA	109	125	153	173	176	202	222	246	277	286	1969
Castellano	86	95	119	139	144	160	176	201	227	229	1576
Euskera	23	30	34	34	32	42	46	45	50	57	393
ZONA SANGÜESA						11	12	9	9	11	52
Castellano						6	8	7	6	8	35
Euskera						5	4	2	3	3	17
ZONA TAFALLA	16	17	23	25	26	28	37	42	43	44	301
Castellano	16	17	22	24	25	27	36	41	42	43	293
Euskera			1	1	1	1	1	1	1	1	8
ZONA TUDELA	36	46	61	67	66	79	91	99	108	110	763
Castellano	36	46	61	67	66	79	91	99	108	110	763
TOTAL	199	234	290	329	327	376	429	471	508	528	3691
Variación %		17,59	23,93	13,45	-0,61	14,98	14,10	9,79	7,86	3,94	

Baimenduriko kontratazio proposamenak, ikasturte hasierako premiez gainera

Ikasturtea	Gaztelania	Euskara	Guztira	Aldakuntza (ehunekoak)
2020-2021	261	76	337	
2021-2022	516	132	648	92,28
2022-2023	577	152	729	12,50
2023-2024	828	208	1036	42,11
2024-2025	646	145	791	-23,65
2025-2026	462	105	567	datuak 2026ko otsailekoak
Guztira	3290	818	4108	

11-26/PES-00127. Galdera, Volkswageni eta Israelekin dituen harremanei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak Volkswageni eta Israelekin dituen harremanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko maiatzaren 15eko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Miguel Garrido jaunak PES-00127 galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuak lehendakariak horri buruz jakinarazten diona:

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Volkswagenekin batera eginiko lana eta izaniko elkarriketa Landabengo lantegira mugatzen da soilik. Guk dakigula, enpresak Foru Komunitatean egindako ezein jarduerak ere ez du helburu defentsa sektorea.

Nafarroako Gobernua oso irmoa izan da Israelgo Estatuak Palestinan egin dituen –eta, NBEko

Giza Eskubideen Batzordearen txosten baten arabera, genozidioaren definizioaren barruan sartuko liratekeen– jardueren aurkako salaketan.

Horren ildotik, Nafarroako Gobernuak defendatu egiten du aplikatzea 10/2025 Errege Lege Dekretua, irailaren 23koa, zeinaz presako neurriak hartzen baitira Gazako genozidioaren aurka eta palestinarren alde.

Gogoraztekoa da Nafarroako Volkswagen ibilgailu elektrikoak eta errekontzakoak mihiztatzean diharduela eskusiboki, eta lantegian egindako inbertsioek erabilera zibilera soilik bideratzen dutela Nafarroako lantegiaren etorkizuna.

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, bakearen kultura sustatzeko eta gatazkak elkarriketaren bidez konpontzeko lanean jarraituko du, bai eta giza eskubideen gehiegikeriak salatzen ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

11-26/PES-00128. Galdera, ehiza antolatzeke planen luzapenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak ehiza antolatzeke planen luzapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko maiatzaren 15eko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-26/PES-00128 idatzizko galdera egin zuen, Ehiza Antolatzeke Planen luzapenaren gainean. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren ustez, juridikoki erabaki al daiteke ehiza antolatzeke plan indardunak modu orokortuan luzatzea harik eta ehizari edo ehiza-kudea-

ketari buruzko foru-lege bat eta hura garatzeko araudia onetsi eta indarrean sartu arte? Baiezkoan, adierazi zer arau zehatzetan izanen lukeen babeslekua erabaki horrek.

Ehiza antolatzeke planen indarraldia arautzen duen egungo araudia honako hau da:

- 17/2005 Foru Legea, abenduaren 22koa, Nafarroako ehizari buruzkoa (155. NAO, 2005eko abenduaren 28koa).

- 48/2007 Foru Dekretua, ekainaren 11koa; honen bidez Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea garatu eta betearaziko duen erregelamendua onetsi da (87. NAO, 2007ko uztailaren 16koa).

- 7/2022 Ebazpena, otsailaren 25ekoa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez eguneratzen baitira Nafarroan ehiza antolatzeke planak prestatzeke baldintza-agiria eta inprimaki teknikoa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren urtarilaren 26ko 125/2012 Ebazpenaren bidez onetsiak. (28. NAO, 2022eko martxoaren 22koa).

Ehiza Antolatzeke Planen (EAP) indarraldiari dagokionez, Nafarroako Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen 36. artikulua EAParen indarraldia luzatzeko bi kasu ezartzen ditu:

“Ehiza antolatzeke planek gehienez ere bost urte iraunen dute indarrean, edo barrutiaren nahiz ehiza kontrolatuko eremuaren indarraldia amaitu arte, lehenago amaitzen bada. Ehiza antolatzeke plana iraungitzen denean barrutia iraungitzeko bi urte edo gutxiago falta bada, planaren indarraldia barrutia iraungi arte luzatu ahal izanen da.

Aurkezturiko ehiza antolatzeke plana onetsi ezean, 35. artikuluko 2. idatz-zatiari jarraituz, aurreko planaren indarraldia automatikoki luzatuztat joko da, gehienez ere urtebeteko eperako”.

Nafarroako Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea garatu eta betearazteke Erregelamenduaren –ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretu bidez onetsirikoaren– 33. artikulua honako hau ezartzen du:

“1. Ehiza antolatzeke planek gehienez ere bost urte iraunen dute indarrean, edo barrutiaren nahiz ehiza kontrolatuko eremuaren indarraldia amaitu arte, lehenago amaitzen bada. Ehiza antolatzeke plana iraungitzen denean barrutia iraungitzeko bi

urte edo gutxiago falta bada, planaren indarraldia barrutia iraungi arte luzatu ahal izanen da.

2. Aurkeztutako ehiza antolatzeke plana onesten ez bada, aurreko plana berez luzatuko da, eta luzatu ere urtebete gehienez, aurrekoa amaitzen den egunetik aurrera zenbatuta.

3. Ehiza antolatzeke plan baten indarraldia ezin luzatu izango da lehendik ere luzatu bada amaiera-eguna ehiza-esparruaren indarraldiaren amaierarekin bat etortzeke”.

Aurrekoa kontuan izanik:

1. 2026aren hasieratik, ehiza barrutien kudeaketaren edo aprobetxamenduaren titularrei –horien indarraldia 2025-2026 ehiza denboraldi honen amaieran iraungi da– jakinarazi zaie beharrezkoa dela EAPa berritzea edo barruti berri bat eratzea eta dagokion EAPa onestea, hurrengo ehiza denboraldian ehizatzeke aukera egon dadin.

2. Gaur egunean, ehiza denboraldi honen amaieran iraungiko diren 26 EAP berritzeke izapidealdian gaude, horiei dagozkien ehiza barrutiak indarrean egonik. Berritze horietan, aurkeztutako ehiza antolatzeke plana onesten ez bada, aurreko plana berez luzatuko da, eta luzatu ere urtebete gehienez, aurrekoa amaitzen den egunetik aurrera zenbatuta.

3. Ehiza barrutien indarraldia amaitzearen aldi berean iraungitzen diren gainerako EAPen kasuan, behin ehiza barrutiak eratuta daudela, aurreko EAPa sorrarazi zuten inguruabarren antzekeak mantentzen badira, aurkeztu eta baliozko-tzen ahalko dira, bidezke diren eguneratzeak egin ondoren betiere.

Ehiza antolatzeke planen balizko luzapen batek zer ondorio juridiko izanen luke indarraldi administratiboa, esleipena, errentamendua edo gaikuntza-titulua ere 2026an bukatuko zaien barrutietan?

Jakinarazi da ondorio juridikoak izanen liratekeela luzapenaren indarraldian Ehiza Antolatzeke Plan bat indarrean izateak ekarriko lituzkeenak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2026ko ekainaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-26/PES-00130. Galdera, epidermolisi buloso distrofikoaren diagnosia duten nafar pazienteei Vyjuvek botika finantzatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak epidermolisi buloso distrofikoaren diagnosia duten nafar pazienteei Vyjuvek botika finantzatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko maiatzaren 15eko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez foru parlamentariak egindako 11-26/PES-00130 galdera idatziaren harira (Osasun Departamentuak aurreikusita ote duen epidermolisi buloso distrofikoaren diagnostikatuta duten paziente nafarrentzat Vyjuvek botika finantzatzea), honako hau jakinarazi du:

Sendagaiak finantzatzea eta, beraz, prestazio farmazeutikoaren zorroan eskuragarri jartzea Espainiako Estatuaren eskumen eskusiboa da.

Ildo horretan, Sendagaien Prezioen Ministerioen arteko Batzordeak oraindik ez du erabakirik hartu bermagene geperpavec finantzaketari buruz.

Erabaki hori hartu bitartean, medikamentua egoera berezien prozeduraren bidez lortzeko aukera gaitu da (1015/2009 Errege Dekretua, ekainaren 19koa, zeinaren bidez arautzen baita egotia berezietako sendagaien eskuragarritasuna).

Nafarroako Foru Komunitatearen aurretiko jarrera sendagai hori finantzatzea da, baldin eta EMAk baimentzea ahalbidetu zuten saiakuntza klinikoan zehaztutako sartzeko baldintzak betetzen badira. Urteko kostua 1.283.100 eurokoa da, prozedura honen medioz ekartzen bada. Alabaina, ildo horretan egiten dugun edozein eskaera Foru Komunitateko Farmazia Batzorde Nagusiak onetsi beharko du, bertan baitaude gai horretan eskumena duten aditu klinikoak eta teknikoak. Oraingoz ezein aditu klinikok ez du eskaerarik egin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00135. Galdera, 11-26/PEI-00018 zenbakiko espedienteari emandako erantzunari atxikitako dokumentuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-26/PEI-00018 zenbakiko espedienteari emandako erantzunari atxikitako dokumentuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko maiatzaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero foru-parlamentariak 11-26/PEI-00018 (11-26/PES-00135) erantzunari erantsitako dokumentuari buruzko argibideak eskatuz egindako informazio eskaerari dagokionez, honako hau jakinarazi du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Egindako galderei dagokienez, hona hemen egindako jarduketaren argibideak:

1. Dokumentu horren hiru sinatzaileek ez dute sinadura digitala erabiltzen, derrigorrezkoa dena Nafarroako administrazio publikoaren edozein dokumentu ofizialetan; zergatik da hori?

Dokumentua lerketa Batzordea abiaraztea erabaki zen une berean sinatu zen. Araudiak, 11/2019 Foru Legearen 110. artikulua, "Foru Komunitateko Administrazioa behartzen du baliabide elektronikoa erabiltzera bere jardura guztietan, ezinezkoa den kasuetan izan ezik", baina sinadura elektronikorik ez izateak ez dio eragiten administrazio egin-tzaren baliozkotasunari, dokumentuak hiru ardura-dunen eskuz idatzitako sinadurak dituelako (NOUko

Profesionalen Zuzendaritza, Administrazio Publiko-ko teknikariak [Langileen eta Lan Harremanen Zuzendariordetzako Adar Juridikoa], eta SNS-Oko Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua); horrek egiaztatu egiten du borondatearen egiazkotasuna.

2. Dokumentu horretan, "Osasunbidea" izena eta haren logoa ez dira OSN-O-ren ofizialak; zergatik da hori?

Sinatutako jatorrizko dokumentua eskaneatu eta editatu egin behar izan zen, jasotako testuaren zati bat anonimo bihurtzeko. Horrek hainbat alda-keta eragin zituen, besteak beste, SNS-Oren logo-tipoaren irudia.

JATORRIZKO GOIBURUA




INFORME DEL SERVICIO DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES Y DE LA DIRECCION DE PROFESIONALES DEL HOSPITAL UNIVERSITARIO DE NAVARRA:

EPSON DS-860 eskaner batekin eskaneatzea.

Jada ".PDF" formatuan dagoen dokumentua FOXIT PDF EDITOR tresnarekin irekitzen da.

Menu nagusitik "Testua editatu" egiten da (edukiaren zati bat anonimo bihurtzeko).

Mezu hori agertzen da, eta OCRa pasatu eta exekutatu behar da, iruditik testura igarotzeko.



Esta página contiene texto no editable. Si quiere editar el texto de esta página, ejecute OCR en el modo "Editar texto" haciendo clic en "Reconocer texto".

☐ No volver a mostrar este mensaje


Configuración

Reconocer texto

Cancelar

Ekintza hori egin ondoren, SNS-Oren logotipo-aren irudia aldatuta eta benetan desitxuratuta agertzen da.

GOIBURU BERRIA



INFORME DEL SERVICIO DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES Y DE LA DIRECCION DE PROFESIONALES DEL HOSPITAL UNIVERSITARIO DE NAVARRA:

3. Lehenengo sinaduraren azpian dagoen karguan, eskaneatutako testu zati bat eta idatzizko beste testu-zati bat konbinatzen dira; zergatik da hori?

"OCR" prozesuak irudi bat testu bihurtzeko aukera ematen du, eta jatorrizko dokumentuan zenbait aldaketa sortzen ditu.

4. Dokumentu hori posta elektronikoz bidali ez bazen eta eskura eman bazen, nork entregatu zuen, eta nori eta nola entregatu zion?

Legebiltzarreko 11-26/PEI-00164 informazio eskaeran jakinarazi zen bezala, ez dago dokumentu hori bidaltzeko helbide elektronikorik, SNS-Oko profesionalen zuzendariari eskura eman baitzitzaion. Batzordea irekitzeko akordioa sinatu zuten pertsonetako batek berak entregatu zuen, jarduketan hasieraren konfidentzialtasun osoa bermatzeko.

5. Ziurtatzen ahal duzu dokumentua erreala dela eta ez dagoela manipulatuta?

Jatorrizko dokumentua benetakoa da eta administrazio prozeduran sartuta dago.

Jada adierazi den bezala, dokumentuaren edukaren zati bat anonimo bihurtzeko baino ez da editatu, datuak babestearren.

6. Noiz sortu zen dokumentu hori?

Dokumentua 2025eko azaroaren 25ean sortu eta sinatu zen, txostenaren testuan berariaz jasota dagoen bezala.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos